

GARAPEN IRAUNKORRERAKO
LITERATURAREN GIDA
(1-6 HELBURUAK)
2021

GARAPEN IRAUNKORRERAKO LITERATURAREN GIDA

(1-6 helburuak)

2021

Egileak

Maite Aperribay-Bermejo
M. Carmen Encinas Reguero
Iratxe Esparza Martin
Karla Fernández de Gamboa Vázquez
Miren Ibarluzea Santisteban
Andrea Perales-Fernández-de-Gamboa

Diseinua eta maketazioa

Valentina Palomino
Freepik

Gida hau UPV/EHUren Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetzako Campus Bizia Lab Programaren 2020/2021 deialdiaren proiektu baten baitan egin da

ISBN: 978-84-09-33979-2



AURKIBIDEA

| | | |
|----|---------|----|
| 0. | Sarrera | |
| | | 6 |
| | | 12 |
| | | 20 |
| | | 25 |
| | | 32 |
| | | 39 |

SARRERA

NORK, ZER, ZERGATIK ETA ZERTARAKO?

Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta Haur eta Gazte Literatura, horietatik batzuk ditugu gida honetan, eta bi helburu nagusi ditugu: baitetik, literaturaren erabilera sustatzea Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) lantzeko eta, bestetik, bitartekariak tresnak eskaintzea literatura-lan egokiak hautatzeko eta baliatzeko. Horiek horrela, balore sozialak eta balore literarioak jarri ditugu erdigunean. Gida honen ardatz nagusia izan da bi-biak kontuan hartzea. Hala, Nazio Batuen Erakundeak Agenda 2030ean jasotako [17 helburuetatik](#) lehenbiziko 6 GIHak lantzeko egokiak izan daitezkeen lan batzuk bildu eta iruzkindu ditugu. Asmoa da datoen urteotan gainontzeko helburuak lantzeko gidak plazaratzea. Bada, helburuz helburu proposatzen diren testuen bidez, haur eta gazteen ikuspegi kritikoa eraikitzen laguntzea dugu xede nagusi, baina literatura-testuen alderdi estetikoak eta literarioak ere begiratuta.

Ibilbide literario bat proposatzen dugu 6 GIH horietako bakoitzerako, eta txikienetatik gazteenetara iritsi asmoz, hezkuntza-ziklo guztiak hartzeko ahalegina egin dugu. Askotariko generoak, egileak, irudigileak, argitaletxeak... topatuko ditugu gidaren erabilzaileak. Askotariko lumenek emanak datoz ibilbideak; izan ere, helburu bakoitzeko lanak bildu, hautatu eta iruzkintzearen ardura egile batek hartu du. Kasuan kasu, iruzkintzen diren lanen datuak eta ezaugarri nagusiak emateaz gainera, dagokion GIHein duten lotura azalarazi nahi izan dugu egileok eta, gainera, literatur lanak eskolan lantzeko proposamenak ere egin ditugu, hezitzaileek nahieran garatu, moldatu, egokitu... ditzaten, edo proposamen berrietarako inspirazio-iturri izan daitezten.

Ahalegin berezia egin dugu euskarazko lanen eta tokiko kultura eragileen berri emateko; hain zuzen ere, 17 + 1 helburuari men eginez. Nazio Batuen Erakundeak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendan 17 helburu jaso zituen arren, UPV/EHUko UNESCO Katedrak 18.a ere proposatu zuen, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aintzatetsita. [UPV/EHUk](#) ere bere egin du helburu hori, baita gida honetako sinatzaileok ere. Helburu horri eusteari berebizikoa iritzi zaio, izan ere, [NBEren Irakurketa Klubean](#), adibidez, GIHak lantzeko zen-

bait obra proposatzen dira, baina hiztun kopuru handiko hizkuntzetako obrak dira, eta gida honetan euskarazko lanei ere eman nahi izan diegu lekua (badira, edonola ere, gaztelaniazkoak ere).

Sei helburu, sei egile eta sei ibilbide literario, beraz, Garapen Iraunkorrerako Helburuetara bidean eta literaturari esker denon gozagarri.

Hain zuzen ere, gozagarri zaie literatura irakurleei; baina, gozagarri izateaz gainera, jakina da Haur eta Gazte Literaturak (HGL) helburu hezigarria ere baduela, eskola-garaian dagoen publikoari zuzentzen zaionez gero; eredu narratibo eta poetikoak eskaintzen ditu, talde-iruditerako sarbidea da, eta kulturaren gizarteratzea sustatzen du. Bada, literaturak indar handiagoa lortzen du, gainera, txiki eta gazteengan sorrarazten duen plazerari erreparatuz gero. HGLk mundua nolako den erakusten die haur eta gazteei, bai eta nolako mundua nahi genukeen ere. Hortaz, tresna ezin hobea da mundu hobe batekin amets egiteko eta, amets horretatik abiatuta, gizarte-eraldaketa sustatzeko. Hortaz, HGL funtsezko erreminta da belaunaldi berriei txiki-txikitik Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) helarazteko. Hizkuntza literarioa testutik kanpo dagoen errealitatea ulertzeko baliagarria da eta literaturak, ikuspuntu estetiko eta ideologikotik, elkarrizketa sozialak betikotzen ditu, edo zalan-tzan jartzen. Horregatik, berebizikoa da haurren eta gazteen kontzientzia kritikoren garapenean.

Gida honen sei egileak irakasle ari gara UPV/EHUko, Hezkuntza Fakultateetan, zehazki, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean. UPV/EHUren Campus Bizia Lab (CBL) izeneko programa batean parte hartu dugu, hain zuzen ere IV. edizioan (2020/2021). UPV/EHUko Iraunkortasunaren eta Gizarte Konpromisoaren zuzendaritzari gure esker ona agertu nahi diegu "Haur eta Gazte Literatura eta GIH" proiektua laguntzeagatik. Proiektu horretan, GIHak eta literatura uztartuta, argitalpen egokien bila ibili gara, eta gida eskura jarri nahi izan diegu, gure ikasleei ez ezik, baita hezitzaile eta gurasoei ere, unibertsitateak gizarterako jauzia eginda.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

1. helburua. Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.
2. helburua. Gosea amaitzea, elikagai segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.
3. helburua. Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.
4. helburua. Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.
5. helburua. Genero berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskatok guztiak ahalduntzea.
6. helburua. Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.
7. helburua. Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.
8. helburua. Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.
9. helburua. Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarriabultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.
10. helburua. Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.
11. helburua. Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.
12. helburua. Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.
13. helburua. Neurri urgenteak hartzea klima aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko.
14. helburua. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarriean erabiltzea garapen jasangarriari begira.
15. helburua. Lehorreko bixtza babestea, lehengoratztea eta modu jasangarriean erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarriean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.
16. helburua. Garapen jasangarriko gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.
17. helburua. Ezarpen baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarriko Munduko Ituna biziberritzea.
- 17+1. helburua. Hizkuntza eta kultur aniztasuna.

1. GH

POBREZIA DESAGERRARAZTEA



[Pobrezia mota guztiak
desagertzea mundu osoan](#)

**Andrea Perales Fernández de
Camboa**

LOS NIÑOS DEL MAR


Idazlea:
Jaume Escala

Ilustratzailea:
Carme Solé Vendrell

Argitaletxea:
Editorial Corre la Voz, 2018

ISBN:
978-84-947412-0-3

40 orrialde
6 urtetik aurrera



Liburu honetan idazlea eta ilustratzailea ipuin zoriontsu eta errealitate bortitzarekin jolasten dira, ume askoren egunerokotasuna islatu nahian. Horretarako, haur literaturak askotan eraiki izan dituen irudi idilikoak hartu eta berregituratu egiten dituzte, gure errealitatean zentzua izan dezaten. Itsasondoko txabola batean bizi diren umei buruzko istorioa da hau, eta ume horien eguneroko errealitatea kontatzen den heinean, bizi garen gizarteari kritika zorrotza egiten zaio. Gizartea da ume horien ongizatea berma-

tu beharko lukeena, beraz liburu honek gure hausnarketa pertsonala sustatzea du helburu, gizarte eraldatzaile baten alde apustu egin dezagun. Idazleak liburu hasten du hitzaurre batekin. Hitzaurre horretan, León Feliperen "Sé todos los cuentos" olerkia dakar lehenbizi, argi uzteko zein den liburu honen tesia: ipuinek askotan errealitatearen ikuspegi edulkoratua deskribatzen dute, eta horrek ez du zerikusirik benetan aurrean daukagunarekin. Asmoen adierazpena nahikoa ez eta autorea berak idatzitako "Balada de los niños del mar" eta bere partitura ditugu ondoren, jarraian datozen orrialdeetan aurkituko duguna hobeto ulertzeko.

Klaserako jardueri dagokienez, zenbait ariketa ilustrazioetatik abiatuta egitea proposatzen dut. Liburu hau egunerokotasunean aurkitu daitezkeen errealitateen inguruan mintzo da, eta irudiek horren berri ematen dute. Bada, album ilustratu honetan irudiak hari narratiboaren atal garrantzitsu bat dira. Zentzu horretan, eta adin tartearen arabera, ikasleei gauza ezberdinak eskatu ahal zaizkie. Adibidez, Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek ilustrazioen eta testuaren inguruko hausnarketa egin dezakete, taldeka jarrita eta liburuaren atal ezberdinak taldeka banatuta. Ikasleen hausnarketa bideratzeko asmoarekin, hauek bezalako galderak proposatu ditzake irakasleak:

- Zer ikusten duzue irudian?
- Zein izan daiteke esanahia?
- Zergatik tartekatzen dira errealitate eta fantasiako elementuak?
- Zure inguruan horrelako egoerak ikusi edo bizi izan dituzu?

Bigarren zikloko ikasleekin, ordea, jarduerak irekiagoak izan daitezke. Aurreko proposamenaren egitura mantenduta, ikasleekin solasaldi bat egitea da aukeretako bat. Obra honen hasieran olerki bat eta kanta bat ditugu; bada, horiek baliatu eta testu horien analisia egin dezakete ikasleek, taldeka. Horretarako, irakasleak eskatuko die testuari eta irudiei erreparatzeko. Hala, ageri diren elementu literarioak ekarriko dira hizpidera, alegia, ilustrazioek eskaintzen dituzten metaforak, edota istorioaren barnean aurki daitezkeen bestelako istorioak (elementu metaliterarioak)... azalaraztea eta ikasleak horiez ohartaraztea da gakoa. Elementu horien inguruko galderak proposatu ditzake irakasleak, ikasleen ikuspegi kritikoa sustatzeko asmoarekin. Azkenik, sormen-prozesu bat egin liteke, bai ikasleei istorioaren bertsio berri bat egiteko eskatuta, bai pobrezia gaitzat hartuta abesti edo olerki bat sortzeko eskatuta. Pobreziaren gaiari ildo ezberdinetatik heldu ahal izango diote sormen-prozesuan ikasleek eta, hain zuzen ere, ikasleen erosotasuna bermatzea izan behar da gure helburua.



POBREAK GARA, ETA ZER?

Idazlea:
Xabier Mendiguren Bereziartu

Ilustratzailea:
Patxi Gallego Palacios

Argitaletxea:
Elkar, 2012

ISBN:
978-84-9027-041-7

30 orrialde
8 urtetik aurrera



Aita eta ama lanik gabe gelditu dira. Hodei txikia ez da egoeraz ohartzen, baina Irati bai, eta kezkatuta dago, etorkizunak zer ekarriko dien. Egun batean, egoera hobetzen ez denez, gurasoek esaten diote baso ondoko etxe batera bizitzera joan behar direla. Irati beldurtu egiten da. Aurretik irakurritako istorioak burura etortzen zaizkio; ipuin horietan umeek pairatzen dutena berak sufrituko ote du? Krisi egoerari buruzko ipuin bat da hau, familien zailtasunak eta haurren beldurrak lantzen dituen.

Gaurkotasan handiko liburua da, ume askok inguruan eta familian bizi ditzaketen egoeren berri ematen duena. Liburu honek ipuin tradizionalei aipamena egiten dionez, hori berri erabili liteke ikasgelan. Izan ere, liburu honetan *Hänsel eta Gretel* istorioaren antzeko bat kontatzen da, baina ezberdina da amaiera. Bada, adibidez, ikasleekin batera zerrendatu ditzakegu pobreziarekin zerikusia duten ipuin tradizionalak (adibidez, *Erpurutxo*). Aipatzen diren ipuin horiek abiapuntu hartuta, ikasleek taldeka sortu ditzakete istorio berriak.

Sormena alde batera utzita, eta liburuaren gaia ardatz hartuta, tertulia dialogikoak ekarri daitezke klasera. Ikasle bakoitzak azpimarratuta ekarriko ditu interesatzen zaizkion aipu edo pasarteak. Ostean, eta klase osoa borobil batean eserita dagoela, ikasleek beren aipu eta pasarteak irakurriko dizkiote taldeari, eta azalduko dute zergatik egin zaizkien interesgarri.

Ziurrenik, beste ikasle batzuek partekatuko dituzte aipu berak eta ikuspegiak partekatzeko aukera izango dute.

LA ESPERANZA ES UNA NIÑA QUE VENDE FRUTA

Idazlea eta ilustratzailea:

Amrita Das

Argitaletxea:

Libros del Zorro Rojo, 2013

ISBN:

978-84-941619-0-2

32 orrialde

8 urtetik aurrera



Istoria honek Amrita Dasek egin zuen tren-bidaia bat kontatzen digu. Abiapuntua Chennaiera (India) egindako bidaia bat da. Hiri horretan liburuak sortzeko tailer batean parte hartu zuen, baina, autoreak ez zuen batere argi zer marraztu. Bat-batean, burutik hainbat ideia pasatu ondoren, trenean ezagutu zuen neska gogoratu zuen. Neska gazte hark ez zeukan jatekorik, eta Chennaira zihoan bertan lan egiteko aukera izango zuelakoan. Autoreak lanean dauden neska adingabeen inguruan hitz egiten du: askatasunik lortuko ote dute inoiz? Zein erabaki hartuko ote dituzte etorkizunean? Emakumeak ditu buruan Dasek, eta bere barneko neska txikia etengabe sentitzen du. Trenetik atera bezain pronto, bes-

te neskatxa bat ikusten du, trenean ikusi duenaren antzekoa. Neska hori ikusi ostean, Das konturatzen da bakoitzak aurrera jo behar duela, bere bidea egin behar duela, etorkizunera irekiak egon behar dugula guztiok... baita berak ere.

Liburu honen indarguneetako bat ilustrazioak dira. Amrita Das Mithilako arte herrikoiairen ordezkaria da. Liburu honetan agertzen diren ilustrazioak Mithiliako arte herrikoiairen erakusgarri dira. Estiloa eskualdez-eskualde aldatzen den arren, amankomuneko ezaugarri batzuk ditu: esaterako, diseinu tradizionalak erabiltzen dira, pintua eskuz egiten da eta, askotan, emakumeek euren interesguneak islatzen dira euren obretan. Zentzu honetan, *La esperanza es una niña que vende fruta* bertako artearen ezaugarria ez ezik, Amrita Dasek emakumeekiko duen ardurara erakusten du bere lehenengo liburu honetan.

Liburu honen bidez, GIHen arteko 1. helburua lantzen da eta Agenda 2030ren beste helburu batzuekin lotu daiteke. Beste helburu horiek ere azaleratzeko, tertulia dialogikoa izan daiteke liburua jorrazteko baliabide egokia.

Aipuen irakurketa lantzeaz gain, hausnarketa eta irakurketa kritikoa sustatzeko galderak egin daitezke: "Ezagutzen al dituzu lanean dauden umeak? Zuen ustez, umeek lan egin behar dute familiak laguntzeko? Ume guztiak eskolaratuak izan behar dira? Neskatilak eta mutilek aukera berdinak dituzte gure gizartean? Eta Indian?".

Beste alde batetik, irudien analisia egin daiteke. Ilustrazio guztiak oso esanguratsuak dira, metaforaz eta sinboloz josiak dira. Gela taldetan banatu eta talde bakoitzari ilustrazio bat emango zai. Iru-diak interpretatzeaz gain, komiki bat marraztu beharko dute. Eman zaien irudia istorioaren hasiera edo amaiera izan daiteke, eta beraiek, Mithilako artea kopia-tuz, komiki bat egingo dute. Horretarako hainbat saio izango dituzte eta, hau amaitu ostean, komiki guztien bilduma bat egin daiteke.

EN EL VERTEDERO CON JUAN Y PEDRO: DOS RETAHÍLAS RIMADAS CON ILUSTRACIONES

Idazlea eta ilustratzailea:

Maurice Sendak

Itzultzailea:

Miguel Azaola

Argitaletxea:


Kalandraka, 2019

ISBN:

978-84-8464-365-4

56 orrialde

8 urtetik aurrera



Maurice Sendak idazle ospetsuaren *En el vertedero con Juan y Pedro. Dos retahílas rimadas* liburuan *Mother Goose* autorearen haurrentzako bi errima berridatzita eta ilustratuta aurkitzen ditugu. Juan eta Pedro protagonistek arratoiak bahitutako haurtxo bat askatzen dute. Sendakena lana aztertu duten adituek diote liburu honekin autoreak adierazten duela egoera ahulean dauden adingabee-kiko kezka. New Yorkeko auzo batean gertatzen da istorioa, eta bertan etxerik gabeko haurrak bizi dira kartoiz eta egunkariez egindako etxeetan. Kritika soziala du oinarri obra honek, baina aldi berean gizateriari egiten zaion dei bat da, itxaropenari egiten zaion kantu bat. Sinbolismoz betetako obra da; esaterako, ilargia etengabe dugu umeen zaintzapean. Obraren konplexutasuna dela eta, irakurketa bat baino gehiago behar du liburuak.

Sendak informazio asko ematen dio irakurleari irudietako xehetasunen bidez: etxebizitzaren krisia, HIESari buruzko berriak, Trump-en imperioari buruzko kritika (etorkizunari keinu bat eginez)... Sendak proposatzen duen iruditeria baliatu dezakegu ikasgelan zerbait jarduera proposatzeko. Iru-diak erabili ditzakegu gaiaren inguruko lehenengo iritziak eta hausnarketak sorrarazteko. Azala abiapuntu ona izan daiteke: "Zergatik dauka ilargiak ahoa hain irekita? Nora daude begira Juan eta Pedro? Zer esaten dute beste pertsonaien arropak? Zergatik erabiltzen ditu egunkarien albisteak arropa gisa?". Orrialdeetan murgiltzen bagara, irudiak aztertu eta honako hau galdetu genezake eztabaida sorrarazteko: "Zergatik dira arratoiak istorio honetako antagonistak? Zergatik daude jantzita arratoiak Pokerreko kartak balira bezala? Ilargiak istorioan zehar garrantzi handia dauka. Zein da bere esanahia? Arratoiak benetan al dira arratoiak?" Halaber, beste ariketa hau ere proposatu daiteke: albumaren testu idatzira begiratuta, ikasleekin 2 errimen irakurketa erritmikoa egitea, eta hortik abiatuta gaiaren inguruan errimak sortzea euskaraz, errima-hiztegi [hau](#) erabilita, adibidez.

ETXEGABETUAK

Idazlea:

Nerea Arrien

Ilustratzailea:

Diego Besné

Argitaletxea:


Erein, 2021

ISBN:

978-84-9109-650-4

88 orrialde

10 urtetik aurrera



Eleberri honek gaurkotasun handiko gaia jorratzen du: berriki mundua jo duen pandemia eta horrek familia askorentzat ekarri dituen ondorioak. Etxea betidanik ulertu izan da babesleku gisa, baina, 2020ko pandemia-egoerak, kontzeptu horri beste adiera batzuk eman dizkio, pandemiak eragindako krisi ekonomiko eta sozialak jende asko etxegabetu baitu. Errealitate kontraesankor horren narrazioa da *Etxegabetuak*, gure gizartearen isla bat, egoera erreal bat salatzen duen irakurlearen isla.

Istorioko protagonistak, Libek, egoeraren berri emango digu zuzen-zuzenean, lehen pertsonan emandako testigantza baten bidez.

Gaur egun bizi dugun pandemia-egoerak familia askoren bizitza-baldintzak modu erradikalean aldatu ditu. Lehen esan bezala, Covid-19aren ondorioetako bat krisi ekonomikoa eta soziala izaten ari da. Egunerok geratzen ari dira familiak etxetik gabe, ezin dutelako alokairua ordaindu edo ezin dietelako oinarrizko faktorei (argindarra edo gasa, esaterako) aurre egin. Pobrezia egoera larriak ditugu gure inguruan eta horiek ere sumatzen dira gure eskoletan. Liburu hau 10-13 urte bitarteko haur eta gazteei zuzenduta dago. Bada, publiko horrek ere pairatu egiten ditu inguruko egoerak, eta gaia klasean plazaratzea bera arnasgune bat izan daiteke, gazteek izan ditzaketen beldurrak, galderak eta iritziak partekatuz.

Testu honek aukera asko eskaintzen ditu eskolan lantzeko. Horien artean aipa daiteke, adibidez, tertulia dialogikoa; izan ere, aukera ematen du ikasleek ikuspuntuak ezagutzeko eta pentsamendu kritikoa sustatzeko. Aidan Chambersek (2007) *Dime: Los niños, la lectura y la conversación* liburuan proposatutako metodologia oinarritzat hartuta egiten digu hemen proposamena. Helburua da ikasleek elkarriketa natural eta derrigortu gabekoa izatea. Horrela, gazteek beren ikuspuntu kritikoa eta sentimenduak partekatzen ikasiko dute. Hala, irakasleak *Dime* esapidea ("Esaidazu") erabiliko du eta, kolaborazioa sustatuz, gazteek benetan partekatu nahi duten hori esatera gonbidatuko ditu. Chambersen lanari jarraikiz, hiru galdera mota egingo ditu irakasleak: oinarrizkoak, hau da, ikasleek iradokizun orokorrak ("zerk harritu zaituzte?" eta gisakoak) zein patroio orokorrak bilatzekoak; orokorrak, hizkuntza eta erreferentzia testualak lantzekoak (literatura-lanak erkatuta eta ikasleek ideien eta iritzien elkartrukea sustatuta egin beharrekoak dira); eta, zehatzak, testuaren nondik-norakoak, zehaztapenak eta berezitasunak aztertzeak. Galderak modu progresiboan landu behar dira; alegia oinarrizko galderekin hasi eta zehatzekin amaitu behar da. Azkenik, buruan izan behar dugu *Dime* metodologia berdinen arteko ikaskuntzan oinarritzen dela; hortaz, irakaslea gidari eta moderatzaile bihurtzen da, ikasleak ikaskuntza prozesuaren erdigunean utziz.

DE NOCHE EN LA CALLE

Ilustratzailea:

Ángela Lago

Argitaletxea:

Ediciones Ekaré, 1999

ISBN:

978-84-942081-3-3

24 orrialde

10 urtetik aurrera



De noche en la calle album ilustratua kontakizun isila da. Alde batetik, testurik gabeko obra bat da, eta irudiak dira istorioa kontatzen digutenak. Beste alde batetik, obra honek lantzen duen gaia askotan isilarazi omen da. *De noche en la calle* albumak kalean lan egiten duten eta kalean bizi diren umeen egoeraren berri ematen digu. Kalean, gauetz, gertatzen da kontakizuna. Kotxeen artean ume bat dabil. Baloiz beteriko kutxa bat darama eskutan. Gidariei eskaintzen dizkie baloiak. Baina gidariek oso modu kaxkarrean erantzuten diote. Gidarien jarrerak oso ezberdinak dira: mesfidantza, beldurra, axolagabekeria... Gau beltza atzealdean dela, gidarien aurpegieretan baliatutako kolore argien bidez ematen digu Ángela Lagok sentimendu horien berri. Bat-batean, norbaitek lapurtu egiten dio umeari baloi gorria. Baina, ostean, umeak kutxa bat lapurtzen du, hasieran zeukan kutxa bera. Hasierako puntura itzultzen da irakurlea, eta istorioak ulerrazten digu etengabe

errepikatzen den zerbait dela eskuartean dugun auzia. Kaleko umeek bizi duten egoera salatzen da liburuan, gaua amaigabea baita ume horientzat.

Duela 20 urte baino gehiago argitaratu zen album ilustratu honek pobreziaren eta gizartearen bazterkeriarekin salaketa argia egiten du. Sarri, eskoletan ume batzuk antzeko egoeratan egoten dira; agian ez dute kalean lanik egiten, baina denbora asko ematen dute bakarrik, kaleetan galduta. Liburu honek aukera ematen du gaia ikasgelara ekartzeko. 10-12 urte bitarteko irakurleei zuzentzen bazaie ere, haur gazteagoekin ere erabili daiteke obra hau. Klasean landu daitezkeen jarduerak askotarikoak dira. Interesgarria da, adibidez, Lagok erabilitako koloreen inguruan mintzatzea, koloreen eta emozioen arteko lotura azpimarratuta.

Brasiletik datorren liburu bat izanda, lanak aukera ematen du aztertze gure kulturaren eta hangoaren arteko antzekotasunak zein diren, sentimenduak eta koloreak oinarri gisa hartuta, esaterako. Testurik gabeko albuma denez gero, ikasleekin istorioaren testua osatzea da ikasgelan proposatu daitezkeen jarduerak bat (taldeka, binaka edo banaka egin daiteke), dela saiakera librea eginda, hau da, ikasleek libreki testua idatzita, dela irakasleak aurretiaz iradokizun batzuk emanda, adibidez, istorioaren lehenengo eta azkenengo esaldiak emanda.

2. GIH

GOSERIK EZ



Goserik ez izatea, Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta nutrizio hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.

Miren Ibarluzea Santisteban

ZUHAITZ BAT

Idazlea eta ilustratzailea:
Rodrigo Mattioli

Itzultzailea:
Jone Hualde

Argitaletxea:
Denonartean, 2020

ISBN:
978-84-17940-25-4

28 orrialde
3 urtetik aurrera



Album ilustratuak kaleratzen dituen argitaletxea da Apila Ediciones, Rodrigo Mattioli brasildarraren *Zuhaitz bat* albuma gaztelaniaz ez ezik ingelesez, katalanez eta galegoz eskaintzen duena. Hainbat hizkuntzataraz itzuli dute lana: turkiera, portugesa, koreera eta poloniera. Euskarazko bertsioa Jone Hualde itzultzaileari zor diogu, Denonartean argitaletxe nafarraren eskutik. Apila Primera Impresión 2019 sariari esker ikusi zuen argia albumak. Bada, 2013az geroztiko sari horrek egile eta ilustratzaile berriak, lehenago obra publikaturik ez dutenak, agerraraztea du xede; ahots eta autore horiei lehenbiziko album profesiona-


la kaleratzeko aukera ematea da helburu nagusia (autoedizioak alde batera utzita, hortaz, ISBNrik izan ez duten egileen eta ilustratzaileen lanak aurkeztu daitezke sarira). Inondik ere, bibliodibertsitatearen oinarriekin bat, hizkuntza-aniztasuna eta autore arituen eta berrien arteko oreka gordetzeko ahalegina dago album ilustratu honen ibilbidearen oinarrian.

Albumaren kontrazaleko hitzek laburbiltzen dute lan honen funtsa: "Alinak zuhaitz bat landatzea erabaki zuen, eta dena hasi zen aldatzen. Batzuetan erabaki txiki bat nahikoa izaten da inguruan dugun guztia eraldatzeko". Izan ere, alor huts bateko lurretan zulo batean jarritako hazitik zuhaitza ateratzen da, eta handik adarrak, eta hara txori-bikote bat dator, arrautzak jartzen dituena, eta untxiak biltzen dira arbolaren magalera, eta erleak sagarren ingurura... eta gertakizunak kateatuta hasieran hutsik zegoen alor hartako aniztasuna hazi eta hazi besterik ez da egiten, albumeko irudiak, elementuak eta koloreak hazi eta bizitu egiten dira orrialdeek aurrera egin ahala, eta halako batean narratzaileak kontuak ere egiteko gaitasunik ez duen arte. Orduetik aurrerakoan, haurrak erreparatu behar dio irudietako ingurunean aniztasunari.

Jolasera dei egiten duen liburua da *Zuhaitz bat*, aho-korapilo baten antza hartzen du albumak arbolaren bueltan biltzen diren izakien kopurua handitu ahala zerrenda luzatuz-luzatuz doala-eta. Narratzaileak jada zerrenda jarraitzeko zailtasunak dituenean, eta bio-aniztasuna irudiek soilik erakusten dutenean, haurrak berak esploratu, identifikatu

eta kontatu behar ditu elementuak, kontura dadin zer nolako biodibertsitatea lor daitekeen hazi txiki batetik, eta ohar dadin norberaren ekintza batek ingurune jakin bateko ekoizpen-ereduak aldatu ditzakela.

Erritmoa eta kateatutako ekintzak dira *Zuhaitz bat* albumaren oinarri. Keinuekin laguntzeko lan aproposa da, ahoz-goragero eta erritmo biziagoan emateko aukera ematen duen jolas-liburua, zenbakiak eskuekin adieraziz irakurketarekin batera gorputz adierazpidea erabiltzeko eta irudietan barrena haurraren pentsamendu matematikoa praktikan jartzeko.



MUNDUKO ZOPARIK ONENA

Idazlea:
Susana Isem Gómez


Ilustratzailea:
Mar Ferrero

Itzultzailea:
Arkaitz Goikoetxea

Argitaletxea:
OOO-Txalaparta, 2017

ISBN:
978-84-17065-00-3

36 orrialde
3 urtetik aurrera



Gaztelaniaz idatzitako jatorrizkoan ez ezik, galegoz, euskaraz eta polakoz ere eskura du irakurleak *Munduko zoparik onena*, adiskidetasuna ardatz duen istorioa. Bada, Susana Isernek emandako istorioa oihartzun bat da, herri-tradizioak belaunaldiz belaunaldi gorde duen istorio baten oihartzuna. Alde horretatik, tradizioaren eta unekoaren arteko zein lokalaren eta globalaren arteko oreka egiten duen lana da eta, era berean, istorioen unibertsaltasuna eta literatur lanen testuartekotasuna ageri-agerian jartzen duena. Goseari aurre egiteko elkarlana

ezinbestekoa dela proposatzeko baliagarri da testu hau, bai eta janariaren funtzio fisiko, emozional eta soziokulturalaz aritzeko ere, [UNESCOren GIHetarako hezkuntza-gidan](#) proposatutakoarekin bat. Izan ere, elur-ekaitzetik eta hotzetik babestera, hainbat animalia datoz basoaren erdian dagoen dortokaren etxolara. Bakoitzak osagai bat dakar, eta dortokaren eskutik, munduko zoparik onena elkarrekin dastatzeko aukera izango dute guztiek bukaeran, prestaketa-lanak banatuta eta mahaia denen artean atondu ostean. Gaubeila atsegina igarotzen dute basoko animaliek mahaia bueltan, otorduek eta janak laguntasuna dakarte eta. Berak ura besterik ez duela jarri, eta zoparen sekretua zein den aitortzen du dortokak bukaeran: etxera etorritako animaliak dira osagai garrantzitsuenak.

Koloretako arkatzez egindako irudiek indartu egiten dituzte etxolako giro atsegina, argi goxoa, animalien neguko arropa lodiak... eta paisaiaren koloreak suabeak badira, bukaeran, mahainguruko eszenek kolore biziagoak dituzte.

Istorioren hamaika bertsio aurki ditzake irakurleak, hainbat garaitakoak eta lekutakoak, askotariko argitaletxe zein formatuetan emanak. Pertsonaien karakterizazioa, zoparen osagaiak... aldatzen dira bertsiorik bertsio, baina istorioaren funtsa bera da: pertsona bakarrak, osagai bakarrarekin, nekez egin liteke zopa bat; askoren artean, nor bere alea ipinita, zopa ederra egin liteke. 1720koa da ezagutzen dugun lehenbiziko bertsioa, Madame de Noyerrek jaso. Geroago Phillipe Barbek ere jaso zuen,

frantsesez (1771), eta Robert Moserrek ingelesez (1808)... Berrienen arteko batzuk dira, adibidez, Marcia Brownen *Stone soup* (1997) izeneko, edota Anaïs Vaugeladerena (2000), gaztelaniaz *Una sopa de piedra* gisa emana Corimbo argitaletxean (2001). Sarean ere topatu daitezke bertsoiak, esate baterako, [Silvina Renaudirena \(2004\) gaztelaniaz](#). Euskaraz ere badugu: Etxegi-roan-eko lagunek jartzen diote ahotsa Giltza argitaletxeko eskola-liburu batean jasotakoari, zehazki, [Antton Irustaren Berakatz zopatik \(Mezulari, 2005\) egokitutakoari](#). Pantailetan ere ikusgai da istorioa, *Harri zopa eta beste zenbait alderantziko ipuin* (2017) haurrentzako film laburren bildumaren parte da eta (Rita eta Luca).

Bada, bertsoien arteko aldean eta berdintasunen bila aritzea izan liteke istorio honek eskaintzen duen lanketa-aukeretako bat. Bestalde, istorioko animaliek egin bezalaxe egin dezakegu guk ere, hau da, denen artean hobetzen diren errezetak presta litezke: fruta-entsaladak, meriendak... Kulturartekotasuna lantzeko, herrialde ezberdinetako zopen errezetak bilatzea eta aurkeztea ere aproposa izan liteke, betiere ahaztu gabe Garapen Iraunkorrerako 2. helburua (goserik ez izatea) lantzeko hautatu dugula liburu hau. Ildo horretan, animaliek dortokaren zoparako zein norberak eskolan egindako errezetarako ekarritako produktuaren inguruko informazioa bildu dezake ikasle bakoitzak, errezeta prestatu ahala kontatzeko: non hazten diren, non ekoizten diren, nondik norako bidea egiten duten elikagai horiek gure supermerkatuetara iritsi aurretik...

SIN PAN Y SIN AGUA

Idazlea:

Luis Amavisca

Ilustratzailea:

Raul Guridi

Argitaletxea:

nubeOcho, 2016

ISBN:

978-84-945971-2-1

32 orrialde

4 urtetik aurrera



Liburuaren istorioak ez ezik, liburuak eurak edota horien historiak izan daitezke jasangarriak eta Garapen Iraunkorrerako Helburuekin bat datozenak. Horietako bat da Luis Amaviscak idatzi eta Raul Guridik ilustratutako *Sin agua y sin pan*; izan ere, egile-editorea eta irudigilea berehala jarri ziren harremanetan Amnistía Internacionalekin, erakunde horren helburuen aldeko ekimena proposatzeko. Hortik etorri zen talde-proiektua: autoreak, ilustratzaileak eta nubeOcho argitaletxeak liburutik jasotako etekinak Amnistía Internacional erakundeari emango dizkiote, eta UDL liburu-banatzailak irabazien %5. Hortaz, liburuaren irakurketak ez ezik, liburuaren zabalkundeak eta erosketak giza-eskubi-deen babesaren aldeko laguntza sustatzen du.

Migrazio-krisiak eta errefuxiatuen egoerak eragin zion egileari istorioa idatzi beharra, eta lehenago ere aniztasunarekin, ezberdintasunarekin, minarekin, bakardadearekin, injustiziekin, bake-beharrarekin... lotutako istorioak eman dituen égalité izeneko bilduman txertatu zuen, gogoan izanik haurrekin ez dagoela taburik eta edozein gairi buruz aritu gaitzekela gaztetxoekin. Zehazki, migrazioa da gosearen eta ongizaterik ezaren ondorioetako (eta arrazoietako) bat, eta gai hori lantzea proposatzen du UNESCOk [GIHen hezkuntzarako gidan](#). Gida horretan proposatzen diren gaien artean dago, halaber, gosea eta malnutrizioa jasateko arriskua duten talde zaugarrien inguruko gogoeta.

Bada, alanbre-hezi bateko alde bietara dauden haurren solas soilak kuestionatu egiten du irakurlea; haurrek ez dute inolako diskurtsorik edota arrazoirik ematen, ekin egiten dute, eta galderak bota: “zergatik dira halakoak gure gurasoak?”. Alde batekoek ogia dute, urik ez; beste aldekoek ura dute, ogirik ez. Haurrek ogia eta ura elkarbanatzen dituzte, bai eta alanbre-hezia jolaserako baliatu. Beste lurralde batetik ezer gabe iritsi da familia bat halako batean, baina, lehengo lepotik burua: gurasoek urik eta ogirik ez elkarbanatzeko. Haurrek lehengo galdera bera: “zergatik dira halakoak gure gurasoak?”.

Irudien sinplifikazio grafikoak eta kromatikoak indartu egiten dute istorioaren sinpletasuna, eta irudigilea pertsonaiei arraza, etnia edo erlijio jakinik gabeko pertsonen ezaugarriak ekiditen ahalegindu denez gero, lagundu egiten du horrek haurrek beren buruak identifikaturik sentitzera eta enpatia lantzerantz.

Hain zuzen ere, UNESCOk 2. GIHa jorratzeko proposatzen dituen helburu sozioemotionalen lerratu daiteke album ilustratu honen lanketa, aukera ematen baitu gosearen eta malnutrizioaren aurrean haurrak beren burua ahaldundu dezan, enpatia, erantzukizuna eta solidaritatea sentitu ditzan, beste haur batuekin lankidetzan aritu daitekeela senti dezan eta goserik eta malnutriziorik gabeko munduaren ikuspegia erai ki dezan. [Albumaren promozio bideoa](#) erabilita egin liteke istorio honen lanketa: istorioa irakurri aurretik, promozio-bideoko musikak iradokitzen dituen sentimenduei buruzko hausnarketa egin liteke, bai eta irudiek erakusten duten araber ere, istorioari buruzko aurre-hipo-

tesiak agerrarazteko eskatuz haurrei. Isterioa irakurritakoan, istorioko haurrek egiten duten galderari erantzuteko ahalegina egin liteke taldean: “zergatik dira halakoak helduak?”. Solasaldia egin ondoren, egoeraren konponbideak irudikatzea eta marraztea izan liteke album honen bueltan egin litezkeen jardueren arteko bat.

ETA TXORIMALOA MINTZATU ZEN

Idazlea:

Ruben Ruiz

Ilustratzailea:

Elena Odriozola

Argitaletxea:

aizkorri, 2003

ISBN:

84-8263-337-6

48 orrialde

5 urtetik aurrera



Tokiko edizioaren eta literatur ekoizpenaren fruitu da *Eta txorimaloa mintzatu zen*, askotariko sariak jaso izan dituzten Ruben Ruiz idazleak eta Elena Odriozola irudigileen lana, Bilboko Aizkorri argitaletxeak argitara emandakoa.

Azokan saltzeko zazpi letxuga bildu behar ditu baserritarrak bihamunean, “eguzkiari kopeta ikusten zaion unean”. Baserritarra oheratutakoan, hainbat animalia agertzen dira baratzerara, letxuga horiek jatera. Txorimaloak egindako ohartarazpenari erreparatu gabe egiten diete kosk astoak, txerriak, ahuntzak, zaldiak, untxiak, behiak eta barraskiloak... letxugei, norberekoikeriari ezin

entsita. Izan ere, animalia bakoitzari banan-banan esaten die Txorimaloak: “Kontuz, kontuz!! Azkeneko letxuga jaten duenak etxea galduko du”. Sabela betetzea eta uneko gosea asetzea dute buruan baratzea bisitatzen duten animaliek. Baten batek txorimaloari kasu egin eta beste baratze batera abiatzen den arren, eta animalia batzuek tarteka-marteka zalantza egiten duten arren, eta nahiz eta buruari hazka egin, kaskoari eragin eta letxuga horiek jan behar ote dituzten pentsatu... gehientsuenek ez dute kontuan hartzen txorimaloaren ohartarazpena, ez eta baserritarraren lana ere, ez eta langilearen nekeak eta ahaleginak ez errespetatzeak edota norberaren ekintzek izan ditzakeen kalteak eta ondorioak ere. Amaieran, txorimaloaren iragarpenak bete egiten dira: letxugekin gertatutakoari begira haserre, zoruan ostiko eginda baratzerara letxuga janera etorritako barraskiloa zanpatzen du.

Tripa asetzeari lotutako hiztegi eta irudi aberatsez josirik, Txorimaloaren esana beteko ote den, intriga puntu batez egiten du aurrera testuak. Ildo horretan, istorioa irakurri bitartean irakurleak interpelatzeko aukera bikaina eskaintzen du lan honek, zer gertatuko ote den, animalia guztiek berdin egingo ote duten eta zergatik... galdetu eta irakurleen hipotesiak betetzen ote diren behin eta berriz frogatzekoa. [UNESCOren GIHetarako hezkuntzarako gidan](#) zehazten diren edukien artean proposatutako gaiekin bat, lan honen irakurketaren ondotik elikagaien funtzio fisiko, emozional eta soziokulturaleri buruz, tokiko ekoizpenetako produkzio-kateei buruz zein norberak kate horietan eragiteko duen moduz hausnar daiteke. Halaber, ikasleak etorkizunean mundua aldatzeko ahaldundua denez gero Garapen Iraunkorrerako Helburuei lotutako hezkuntzaren xedea, *Eta txorimaloa mintzatu zen* istorioaren bertsioak sortzeko eska dakieke ikasleei: zer nolako istorioak sor litezke istorioko animalien erabakiak aldatuta?

GOSEA MUNDUAN NEURE SEMEARI AZALDUA

Idazlea:

Jean Ziegler

Azalaren egilea:

Esteban Montorio

Itzultzailea:

Andoni Eskisabel

Argitaletxea:

Txalaparta, 2000

ISBN:

84-8136-186-0

80 orrialde

12 urtetik aurrera



Jean Zieglerrek *La faim dans le monde expliquée à mon fils* (Le Seuil, 1999) argitaratu eta hurrengo urtean bertan itzularazi eta plazaratu zuen *Gosea munduan neure semeari azaldua* Txalaparta argitaletxeak, bere webgunean zehazten den konpromisoari eutsita: “Mundua aldatzen duten pertsonak aldatzen dituen liburua” argitaratzea. Bada, mundua aldatu beharra erakusten duten datuak, arrazoiak eta tresnak eskuratzeko bidea dute liburu honen irakurleek aita-semeen arteko elkarrizketa baten bitartez.

Datu, arrazoi eta tresna horiek guztiak goseari, nekazaritza jasangarriari, nutrizioari... lotutako gaietan aritu eta adituak eskaintzen ditu: Jean Ziegler Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Munduko Elikadura Eskubiderako informatzaile berezi izan zen 2000. urtetik 2008ra arte, eta 2012ra bitartean NBEko Giza Eskubideetarako Batzordeko Laguntza Batzordeko kidea izan zen.

“Gaur egungo munduko nekazaritzak 12 mila miloi pertsona elika ditzake (...) ez dago, beraz, gai horren inguruan inongo halabeharrik. Gosez hiltzen den haurra hilarazitako haurra da”. Jean Zieglerren hitzak dira. Egilearen adierazpen hori funtsatzen duten azalpenak eta gogoetak topatuko dituzte irakurle gazteek liburuan, abiapuntua delarik semearen haserre: “Ezin dut ulertu, hain planeta aberatsean, nola hainbeste jendeak gosez hiltzen jarraitzen duen”. Hortxe hasten da aita-semeen arteko elkarrizketa, eta munduak bizi duen egoerari lotutako kontzeptuak, zergatiak, jardunbideak... dira hizpide hurrengo orrialdeetan: gosea bizi duten zenbait herrialdeetako egoera zehatzak azaltzen dira, eta gosearekin lotutako teoriak eta kontzeptuak aletzen dira, gose mota ezberdinen arteko aldeak azalduta, adibidez. Gosez bizi diren pertsonen bizilekuetako edota gosea eragiten duten herrialdeetako sistemen eta teorien argi-ilunak agertzen ditu egileak, eta kontraesanak azalarazten. Era berean, nazioarteko eragileek proposatzen dituzten irtenbideen inguruko hausnarketa egiten du egileak eta, adibidez, Nazio Batuetako Elikadura eta Nekazaritzako erakundearen egitekoen eta jardunbidearen berri ematen du, Munduko Elikadura-programa zertan den azaltzen du... Liburuan aipagai dira, aurrekoek gain, munduko nekazaritzaren gainproduktioa, goseteen eta gerren edota hondamendien arteko lotura, munduko merkataritzak gosean duen eragina... Labur esanik, gosearen ikuspegi historikoa ez ezik, tekniko eta kritikoa ere eskaintzen dio Zieglerrek irakurle gazteari.

Askotariko aukerak ematen ditu lan honek “Goserik ez izatea” GIHa lantzeko. Esate baterako, liburuaz gainera Zieglerri egindako elkarrizketak bilatu daitezke sarean, horiek irakurri eta hari egiteko beste elkarrizketa bat prestatu daiteke gelan. Zieglerren liburuan hainbat herrialdeetako egoerei errapatzen zaienez gero eta datu konkretuak ematen direnez gero, proposamen interesgarria izan liteke autoreak 1999an emandako datuak gaur egun zertan diren arakatu eta

bilakabiderik egon ote den aztertzea. Horretarako, ikasleak ikertzaile lanetan jarri, informazio-bilketa egin eta, ondoren, liburuan bezalaxe galdera-erantzunen bidez aurkeztu ditzakete ondorioztatutakoak. Bukatzeko, azaleko irudiari erreparatzea da azken proposamenaren gakoa: azaleko irudia laguntzeko aipu bat hautatzeko eskatu dakieke ikasleei. Horri loturik, eta liburuan irakurritakoak kontuan hartuta, ikasleek bestelako aipuak hautatuta irudi gehiago ekoitzi edo hautatu ditzakete, kontzientziario-kanpaina bat abiarazteko beren komunitateetan.

BIZI BARATZEA, ALTZA PORRU

Idazleak eta ilustratzaileak:

Jakoba Errekondo Saltsamendi, Ainara Azpiazu Aduriz, Antton Olariaga Aranburu, Asisko Urmeneña, Joseba Larretxe Berazandi, "Mattin" Martiarena, Patxi Huarte Larraburu, Unai Gaztelumendi Arandia, Unai Iturriaga Zugaza-Artaza, Idoia Torregarai Martija, Maialen Lujanbio

Argitaletxea:

Argia, 2016

ISBN:

978-84-608-7827-8

101 orrialde

12 urtetik aurrera



Jakoba Errekondo paisajista eta agronomoa da, urte luzez euskal herriko komunikabideetan baratze zaintzari buruzko transmisioan aritua: ezagun da baratze zainen zalantzak argitzeko irratian egin izan duen asteroko saioa. Errekondoren jakintza jasotzen duen liburua plazaratu zuen 2015ean Argiak: *Bizi baratzea*, baratze zaintzari buruzko oinarrizko irakurketa, zale zein profesionalentzako eskuliburu gisakoa. Arrakasta handia lortu zuen, eta urtebete baino gutxiagoan 10.000 ale eta lau argitaraldi izan zituen. Liburu hartatik abiatuta sortutako testu, irudi eta komiki-bildu-

ma da *Bizi baratzea, Altza Porru!*. Errekondok berak dei egin zien irudigilei, proiektu kolektibo bat abiarazteko. Baratze gintzaz eta nekazaritza iraunkorra lantzeko ez ezik, lan aproposa da hau, bibliodibertsitatearen printzipioekin bat, literatur genero ez hain hedatuak lantzeko; izan ere, euskal komikigintza garaikidearen panoramaren bilduma gisa ere definitu liteke, zortzi euskal komikigileren lana biltzen baita bertan.

Barazki aurpegia dutela aurkezten dira liburuako egileak, Errekondo eta zortzi irudigileak, biografia poetiko batek irudikatzen dituelarik beren sustraiak. Maialen Lujanbio bertsolariak idatzi du liburuaren hitzaurrea, kalekume bat baratzean hasten deneko esperientziaren berri emanez. Ondoren datoz "Jagobakeriak" izenburupeko testuak, gogoetak eta hitz-zerrendak, irudigileen komikien sarbide. Nork bere estiloan egindako komikiak biltzen dira komiki-bilduman, arestian aipatutako liburua ardatz hartuta, nork bere interpretazioak egiten dituela. Esate baterako, *Bizi baratzea* (2015) lanean ageri den Arantxa Iturberren ipuinen moldaketa egiten du Larretxeak. Gainerakoan, baratze zaintzari buruzko gomendioak, ongariaren gorabeherak, baratze lurpean bizi diren satorren komerkiak, permakulturaren, zero zabor eta biodinamikaren paradisu bizi diren gizaki primitiboak, mitinean hanka sartuz geroztik amonarenera jo behar duen lehendakaria... topatuko ditu irakurleak liburuan. Istorio denak ere umorez josita datoz. Desafioa ere jotzen die Errekondok irudigileei: bertsolariak kartzelako lana nola, testu bera emanda irudikatu dituzte eszenak.

Bada, hain zuzen ere ariketa hori berori egiteko eska dakieke irakurleei, testu horretatik abiatuta beren bertsoak sortu ditzaten. Halaber, Jakoba Errekondoren liburutik, irratsaioetatik zein [blogetik](#) abiatuta sortu ditzakete komikiak irakurle gazteek [askotariko tresnak erabilia](#), euskal komikigintza garaikidearen 8 ordezkariak egin bezalaxe. Errekondoren lanetan askotariko gaiak eta hizpideak topatuko dituzte irakurleek, komikiak sortzeko, denak ere nekazaritza iraunkorraren printzipioak, jarrerak, jarduerak eta mugimenduak ezagutzeko eta zabaltzeko baliagarri, [UNESCO-ren GIHen arako hezkuntzarako gidan](#) zehazten diren edukiekin bat. Errekondoren arabera, baratze iraultza bat da, eta iraultza horrek emango die bidea irakurle gazteei GIHen arteko 2.ari heltzeko.

3. GIH

OSASUNA ETA ONGIZATEA



[Guztontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea](#)

Karla Fernández de Gamboa Vázquez

BOSGARRENA

Idazlea:
Ernst Jandl


Ilustratzailea:
Norman Junge

Itzultzailea:
Ane Erroteta

Argitaletxea:
Hiria, 2006

ISBN:
978-84-9797-214-7

30 orrialde
2 urtetik aurrera



Lehen irakurleentzat zuzendutako album ilustratu honen protagonistak apurtuta edo hondatuta dauden bost jostailu dira: hegoak falta zaizkion pingüinoa, gurpil bat falta zaion egurrezko ahatea, besoa bendatua eta begi batean adabakia dituen peluxezko hartza, tiritita bat duen latorrizko igela, eta sudurra hautsita duen Pinotxoa. Iluna eta apainduratan urria den itxarongela batean daude, sabaitik zintzilik dagoen lanpara batek eta ate baten azpitik dagoen argi ahulak soilik argitzen dutena. Hasiera batean, irakurleei ez zaie argi geratuko zer gertatzen ari den. Zer ezkutatzen da ate horren atzean? Zeren zain daude jostailuak? Banan-banan, jostailuak atetik

sartzen dira, eta handik gutxira bertatik irribarretsu irteten dira hurrengoari pasatzen uzteko. Izenburuak Pinotxori egiten dio erreferentzia, sartzen den bosgarrena eta azkena delako. Azkenean, irakurleek ikusiko dute ate atzean ezkutatzen zena jostailu guztiak konponzen dituen doktore atsegin baten kontsulta besterik ez dela. Hortaz, amaiera positibo eta lasaigarri honen bidez, medikua-ren kontsultaren beldur izateko arrazoirik ez dagoela erakusten da. Planteamendu hori da, hain zuzen ere, [UNESCOren GIHetarako hezkuntza-gidan](#) 3. GIHrako iradokitako gaiekin lotura estua duena, kontsulta medikoa osasuna eta ongizatea sustatzeko zuzeneko estrategietako bat baita.

Album honen jatorrizko bertsioa 1997an argitaratu bazen ere, Ernst Jandlek (1925-2000), XX. mendeko poeta alemaniar garrantzitsuenetako batek, 1968an idatzitako poema batean oinarrituta dago. Testua oso laburra eta sinplea da, eta istorioak lehen irakurleentzat oso aproposa den egitura jarraitzen du: metatze-sekuentzia erregresiboa. Izan ere, oraindik idatzizko kode adeskodetzen ez dakiten irakurleek zein ikasten hasita daudenak sekuentzia jarraitu eta horri aurrea hartu ahal izango diote.

Liburu honek Bologna Ragazzi saria jaso zuen 1998an eta epaimahaiak Norman Junge (1938-) artista alemaniarren estilo dotore, fina eta soila bereziki goraiatu zuen. Nahiz eta itxura sinpleko albuma izan, sinbologia landuaz eta konposizio-jokoaz osatuta dago. Esate baterako, pertsonaien aurpegi-espresioek eta

keinuek, eta itxarongelako argi eta itzalen jokoak misterio eta kezka sentsazioa sortzen laguntzen dute. Kable luze batetik zintzilik dagoen lanpara, adibidez, jostailu bakoitza kontsultan sartzen denean aterantz okertzen da, bertikalki mantentzen da atea itxita dagoenean, eta eskuine-rantz okertzen da jostailua atetik irteten denean.

Ugariak dira album honek bitartekariei eskaintzen dizkien aukerak: gaixotasuna eta sendaketa bezalako gaiak aurkeztea, pertsonaien emozioak ilustrazioei esker identifikatzea eta horien inguruan eztabaidatzea, atearen atzean egon daitekeenari buruzko hipotesiak formulatzea, ezezaguna den zerbaitek eragin dezakeen beldurrari buruz eztabaidatzea, egitura narratibo desberdinak identifikatzea, hurrenkeraren numerikoa modu ludikoan aurkeztea, etab.

XOMORRO LAPURRA

Idazlea:
Irati Garmendia

Ilustratzailea:
Ane Arzelus

Argitaletxea:
Erein, 2021

ISBN:
978-84-9109-677-1

36 orrialde
4 urtetik aurrera



Minbizia gaur egun gure gizartean eragin handia duen gaixotasuna bada ere, askotan ez da samurra horretaz hurrekin hitz egitea eta are eta mingarriagoa da zoritxarrez gertu bizi dugunean. Horrexek bultzatu zuen, hain zuzen ere, Irati Garmendia (1994-) liburu hau idaztera. Idazleak berak aitortu duenez, bularreko minbiziaz hitz egiten duen istorio hau bizipen pertsonal batean oinarrituta dago.

Kattalin da album honen protagonista eta narratzailea. Haurtzaroan ohikoa den inozentzia eta gozotasunarekin, Kattalinek bere amak titian xomorro bat duela kontatzen du. Gainera, xomorro horrek denetarik lapurtu dio amari: jolasteko gogo, irribarrea, ilea... baita titia ere! Dena den, titia ostearekin batera, xomorro

lapurrak amaren gorputzetik ospa egiten du eta amak jolasteko gogoia, irribarrea eta ile kizkurra berreskuratzen ditu. Horrela, metaforen bidez, "minbizi" hitza inoiz erabili gabe eta haur baten ahots narratiboa baliatuz, lehen irakurleei hain konplexua eta gogorra den gaia aurkezten zaie.

Ane Arzelus (1993-) irudigileak, ohikoa duen estilo grafiko sinplearekin, ederki irudikatzen du protagonistaren haur-ikuspegi samur eta tolesgabea. Ilustrazio koloretsuek hasieran Kattalinen familia aurkezten badigute ere, zomorroiari erreparatzen diote bereziki, amaren gaixotasuna modu figuratiboan irudikatuz. Adibidez, zomorroiak mendi baten aldatsean kanpatzen duenean edo amaren ile kizkurra janzten duenean.

Euskal haur eta gazte literaturan ez dira ugaririk minbiziari jorratzen duten liburuak eta are gutxiago lehen irakurleei zuzendutakoak. Hor-taz, album hau lagungarria izan daiteke hain konplexua den gai honi heltzeko. Izan ere, haurrekin minbiziari hitz egitea ezinbestekoa da, batez ere haiek, senide batek edo gertuko norbaitek gaixotasun hori pairatzen badu. AECC minbiziaren aurkako elkarteak azaltzen duen moduan, helduak garen aldetik, baliteke haurrak minbiziari bezalako gai asaldagarrietatik babestu nahi izatea. Hala ere, gaia saihesteak haurrak nahas ditzake eta okerrago sentiaraz ditzake.

Gai honi eta beste gaixotasun batzuei heldu nahi dieten bitartekariak ASCOk (*American Society of Clinical Oncology*) bere [webgunean](#) eskaintzen dituen aholkuak ([gaztelaniaz](#) ere irakur daitezkeenak) jarraitzea gomendatzen diegu. Era berean, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako [Minbizi duten haurrak heztea](#) gida erabilgarria izan daiteke minbiziari duten ikasleen familia, irakasle eta ikaskideentzako orientabideak eskaintzen baititu.

Liburu honek Haur eta Lehen Hezkuntzan izan dezakeen erabilerrari dagokionez, oso irakurgai aproposa da Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Egunean (urriaren 19an) irakurtzeko eta gaixotasun honen inguruan haurrekin hitz egiteko.

¡MAMÁ PUSO UN HUEVO!: O CÓMO SE HACEN LOS NIÑOS

Idazlea:
Babette Cole

Ilustratzailea:
Babette Cole

Itzultzailea:
Pilar Jufresa

Argitaletxea:
Destino, 1993

ISBN:
978-84-233-2288-6

40 orrialde
6 urtetik aurrera



Babette Cole (1949-2017) bere belaunaldiko ilustratzaile bikainenetakotzat hartzen da. Artista ingeles honek 70 liburu baino gehiago idatzi eta ilustratu zituen eta horietan hainbat gai jorratu bazituen ere, denek dute funts bera: haurrek helduen munduari buruz duten ikuspegia balioztatzea eta, umorearen bitartez, helduen portaerak, jarrerak eta ekintzak zalantzan jartzea eta hainbat estereotipo desmuntatzea, bereziki generoa ardatz dutenak.

Babette Coleren liburu batzuek, batez ere sexu eta ugalketa-osasunari buruzkoak, polemika handia eragin izan dute; izan ere heldu askok, orain-

dik ere, ez dakite nola hitz egin gai horiei buruz haurrekin. Horixe da, hain zuzen ere, album honen abiapuntua. Gurasoak haien seme-alabari umeak nola egiten diren azaltzen saiatzen dira. Amaren ustez, haur batzuk mazapanez egin daitezke edo loreontzietan haziak landatuz. Aitaren arabera, berriz, dinosauroek ekartzen dituzte edo harrien azpitik irteten dira. Haurrak, gurasoen azalpenei adi, barre-algaraz lehertzen dira halako ergelkeriak entzun ondoren, eta gurasoei umeak benetan nola egiten diren azaltzea erabakitzen dute. Horrela, beraiek egindako marrazki batzuen laguntzaz ernalketa, haurdunaldia eta erditze prozesua bezalako gaiak azaltzen dizkiete.

Laburbilduz, liburu honek umore absurdu, ironiko eta subertsiboaren bidez, lotsa alde batera uztera eta gai garrantzitsu honi buruz haurrekin hitz egiteko aukera ematen digu. Bitartekari eta haurren arteko elkarrizketa horri ekiteko, besteak beste, hipotesiak formulatu daitezke umeak albumaren gurasoek esaten duten lekutik jaio ote daitezkeen jakiteko. Zalantzarik gabe, irakurgai hau oso gomendagarria da haurrak sexu- eta ugalketa-osasuna bezalako gaiei buruz hitz egiteko gai izan daitezen, eta, honela, [UNESCOren GIHetarako hezkuntza-gidak](#) iradokitzen duen helburuetako bat lortzeko. Ildo berean, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako eta sexu-heziketa ardatz duen [irakurketa-gida](#) gomendatzen dugu, bertan mota askotako errekurtsioak biltzen baitira.

MISS TXATARRA

Idazlea:
Xabier Mendiguren

Ilustratzailea:
Patxi Gallego

Argitaletxea:
Elkar, 2007

ISBN:
978-84-9783-471-1

70 orrialde
10 urtetik aurrera



Xabier Mendiguren (1964-) euskal haur eta gazte literaturako idazle oparoenatariko bat da; izan ere, azken hamarkadetan, urtean liburu bat baino gehiago argitaratu du. 2009an VII. Lizardi Saria jaso zuen eta bere ekoizpen zabalak hainbat gai jorratzen baditu ere, batez ere errealismo kritikoaren korrantea jarraitzen du. *Miss Txatarra* eleberri laburra ez da salbuespena eta, kasu honetan, bazterreko errealitate soziala deskribatzen da drogomenpekotasuna, hiesa eta heriotza bezalako tabuei helduz.

Katixa dugu istorio honen protagonista eta narratzailea. Aitarekin batera txatarregian bizi da, aitaren lantokian. Testuinguru marjinala dirudien arren, neskatxa gustura dabil bertan, ezkutaketan, polizietara edo auto-karreretara jolasten ez duenean, aitaren lagun *heavy* eta motorzaleekin elkartzen da. Hala ere, badirudi pertso-

na guztiek ez dutela Katixaren bizimodua ulertzen. Astero amona bisitatzen duenean seño-rita bat bezala jokatu behar duela esaten dio, baina Katixak ez du seño-rita bat izan nahi. Horrek ere arazoak ekarri dizkio eskolan, jolas-orduan gelakide bat jotzen baitu marimutil deitzeagatik.

Liskar horren ondoren, protagonistak eskolako psikologoarekin biltzen da, eta honek, besteak beste, “zer gogoratzen duzu zure amatxo?” galdetzen dio. Galdera horrek Katixa bere amari buruz dakien gutxiaz ohartzea eragiten du, bera txikia zela gaixotasun larri baten ondorioz hil baitzen, eta aitak ez du gai horretaz gehiegi mintzatu nahi. Horrela, bere ama nolakoa zen eta nola hil zen jakiteko ahaleginean, aitaren lagun motorzale batekin hitz egitea lortzen du eta honek egia kontatzen dio: ama “bizitzaren alderdi basatian ibiltzen” omen zen, baina bere lagunik onena gaindosiak jota hil ondoren, heroina ustea erabaki zuen; handik gutxira haurdun zegoela jakin zuen eta haurdunaldiko analisietan hiesa zuela jakinarazi zioten. Katixa gaitzetik libre jaio bazen ere, bere ama handik gutxira hil zen. Erantzun horrek beste hainbat galdera eta gogoeta sortzen ditu Katixarengan eta, ziur asko, baita irakurleengan ere.

Liburu honek konplexuak izan daitezkeen eta [UNESCOren GIHetarako hezkuntza-gidak](#) 3. GIHrako iradokitako hainbat gai jorratzen ditu orri gutxitan. Gainera, hamar urteko irakurleentzat protagonistaren aitak eta bere lagunak erabiltzen duten hizkera ulertzea erronka izan daiteke. Hori dela eta, bitartekarien lana beharrezkoa da liburu hau adin horretako haurrekin irakurri nahi bada. Adibidez, bitartekariak liburua ahots gora, kapituluka, kontatu dezakete (lehenengo bi kapituluaren audioak [etxegiroan](#) webgunean entzun daitezke) gerora tertulia literario bat burutzeko. Tertulia horretan liburuaren gaiak (drogen eta gaixotasunen prebentzioa, hiesa, heriotza, etab.) pertsonaiez, narratzaileaz, etab. mintzatu daiteke. Azkenik, idazlea ere eskolara gonbidatu daiteke tertulian parte hartzeko edo elkarrizketatzeko.

4. GIH

KALITATEZKO HEZIKETA



[Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea](#)

M. Carmen Encinas Reguero

YO SOY ADILA. HISTORIA ILUSTRADA DE MALALA YOUSAFZAI

Idazlea:

Fulvia Degl’Innocenti

Ilustratzailea:

Anna Forlati

Argitaletxea:

Jaguar, 2016

ISBN:

978-84-16434-29-9

26 orrialde

6 urtetik aurrera



Adila neska pakistandarra da, eskolara joatea gustatzen zaio eta amets egiten du irakasle, mediku edo idazle izatearekin. Bere gurasoak, aldiz, Adilaren beste ikaskideen gurasoek bezala, Adilak eskolara joateari uztea pentsatzen ari dira, etxean seguruago egongo dela uste dutelako. Adilaren irakaslea etxera joaten zaie eta gurasoekin hitz egiten du. Irakasleak gurasoei kontatzen die Malalaren istorioa, Adilak bezala, eskolara joatea gustatzen zaion eta ikasten ahalegintzen den neskatoaren istorioa. Baina Malala bizi den hiria gerran dago eta talibanak, besteak beste, neskak eskolara joatearen aurka daude. Hamaika urte besterik ez dituela, Malalak blog bat idazten du, anonimoki, eta BBCrako testuinguru horretan

izandako esperientziak kontatzen ditu. Gerra amaitzen duenean, Malalak anonimotasuna uztea erabakitzen du, eta bere hiriko haurrak defendatzea. Baina talibanek traidoretzat jotzen dute eta erailtzen saiatzen dira. Horren ondoren, bere familia osoa Ingalaterran kokatzen da, arriskutsuegia delako eurentzat Pakistanen bizitzea. Hala ere, sendatu ondoren, Malalak haurrak defendatzen jarraitzen du eta, batez ere, eskolara joan ezin diren milioika neska defendatzen ditu. Malalak hainbat sari jasotzen ditu eta 2014an Bakearen Nobel Saria ematen diote, inoiz neska bati eman ez diotena. Malalaren istorioa kontatzen amaitzen duenean, irakasleak Adilaren gurasoei agur esaten die eta alde egiten du. Adilaren gurasoek erabakitzen dute Adilak eskolara joaten jarraitzea.

Album ilustratu honek Malala Yousafzai-ren istorioa eta eskubide zibilen alde (baina batez ere neskek hezkuntzarako duten eskubidearen alde) egindako borroka kontatzen du. Ildo beretik idatzitako beste izenburu batzuk ere aipa daitezke, hala nola, *El lápiz mágico de Malala* (Malalaren arkatx magikoa), Malala Yousafzai-ren eskutik, Kerascoët-ek ilustratua eta Alianza Editorial-ek 2017an argitaratua. Gaur egun Afganistanen dagoen egoera ikusita, liburuaren egunerokotasuna, zoritxarrez, bista-bistakoa da.

Nabarmentzekoa da, istorioak ez ezik, proiektu honek giza-eskubideekin duen lotura. Izan ere, *Yo soy Adila* liburuaren argitaletxeak, Ediciones Jaguar-ek, 0,50 € emango dizkio saldutako ale bakoitzeko Amnistia International-i.

Liburua erabilgarria da, besteak beste, emakumeen hezkuntzari buruzko hausnarketa egiteko. Malalak defendatzen baitu neskek ikas dezakete-la eta mediku, irakasle... bihur daitezkeela. Ikasleek pentsatu bekarko dute ezagutzen dituzten emakumeengan. "Zein lanbide dute? Ezagutzen al dituzte munduan beren lanbideagatik nabarmendu diren emakumeak? Zer izan nahi dute haiek nagusitan?" Halaber, beraien lanbideagatik nabarmendu diren emakumeak bilatuko dituzte. Horietako bat aukeratu eta berari buruzko mural bat egin ondoren, ikasleek testu bat idatziko dute etorkizunean zer izan nahi duten azalduz.

Bestalde, liburua oso erabilgarria da gaztetxoekin eskolara joan ezin diren umeei buruz hitz egiteko. Izan ere, herrialde batzuetan umek ez dute eskolara joan nahi eta, oster, beste herrialde batzuetan joan nahi dute baina ezin. Egoera paradogikoa da eta horri buruzko hausnarketa egitea baliogarria izango da, eskolaren balorazioa hobetzeko eta azpimarratzeko.

LA ESCUELA SECRETA DE NASREEN. UNA HISTORIA REAL DE AFGANISTÁN

Idazlea eta ilustratzailea:

Jeanette Winter

Itzultzailea:

Laura Iglesias

Argitaletxea:

Juventud, 2010

ISBN:

978842613808-8

26 orrialde

6 urtetik aurrera



Modu sotil eta delikatuan, Jeanette Winter-ek *La escuela secreta de Nasreen* liburuan gerraren eragina, eragiten dituen absentziak eta geratzen diren mina jasotzen ditu. Liburuak basakeriaren aurkako errugabeen borroka erakusten du, batez ere emakumeen eta haurren borroka. Indarkeriaren iluntasunaren aurrean, liburuak argirako bidea erakusten du. Eskolak, bere irakaspenen, liburuen eta, azken finean, Kulturaren bidez, leiho bat irekitzen dio munduari eta argia eta itxaropena transmititzen ditu egoera txarretan ere. Ume askorentzat, eskola ez da beti gustoko

zerbait, betebeharrak bat da. Bada, *La escuela secreta de Nasreen* liburuan bestelako egoera batera hurbiltzen gaitu irakurketak, eta zoritxarrez benetako bestelako egoera bat kontatzen da, non eskolara joatea eskubidea ere ez den, baizik eta erronka eta ausardiaren erakustaldia. Horregatik, haurrek, irakurketa honen bidez, joan behar izateagatik kezaketik urundu eta sekretua gordetzen laguntzeko aukera dute, ikastetxeari esker munduari bihotza irekitzekoa.

Jeanette Winter irudi-liburuen egile ospetsua da, eta horietako askok bere konpromiso soziala erakusten dute. Winterren lanen artean, aipatutakoez gain, *La bibliotecaria de Basora*, *Wangari y los árboles de la paz*, edo *Greta. La lucha de una niña por salvar el planeta* daude.

La escuela secreta de Nasreen liburua [Haurren Eskubideen](#) inguruan ikasgelan lantzeko abiapuntua izan daiteke, baina, batez ere, [hezkuntzarako eskubidea](#) lantzeko. Gelan haurren eta Nasreen bitzta alderatuz gero, egunero eskolan ikasten dutenaz eta dauzkaten abantailez hausnar daiteke.

ELEFANTE TXORI-BIHOTZA

Idazlea:

Mariasun Landa

Ilustratzailea:

Emilio Urberuaga

Argitaletxea:

Anaya, 2001

ISBN-10:

8466706259

ISBN-13:


978-8466706254

70 orrialde

8 urtetik aurrera



Istori honetako protagonista animalien irakasle bat da, armiarme irakasteaz nekatuta, Afrikako elefante talde bati irakasteko lana onartzen duena. Hasieran ilusio handia du, elefanteek ikasteko memoria eta gaitasun handia dutelako eta, gainera, oso kuriosoak direlako. Hala ere, laster arazoak agertzen dira; izan ere, irakasleak elefantei irakurtzen irakatsi nahi badie ere, elefanteek nahiago izaten dute beste gauza batzuk ikasi, nor bere interesak, era askotakoak, dituztelako. Gainera, irakasleak deskubritzen du, nahiz eta elefante guztiek itxura berdina izan, barnean elkarren artean oso desberdinak direla. Tigre-bihotzeko



elefanteak daude, oso umore txarra dutenak; tximino-bihotzeko elefanteak ere badaude, beti mugitzen ari direnak; inurri-bihotzeko elefanteak ere badaude, lan egiteari uzten ez diotenak... Eta egun batean irakaslea konturatzen da bere elefante taldean txori-bihotzeko elefante bat dagoela, elefante mota arraroa da, baketsua, isila, goxoa... Baina, izeka egiten diote beste elefante batzuek. Hala ere, txori-bihotzeko elefante horrek elefante talde osoa salbatzea lortzen du eta irakasleak, orduetik aurrera, txori-bihotzeko elefanteak ikertzeraz dedikatzea erabakiko du.

Mariasun Landa da euskaratik beste hizkuntzetara gehien itzuli izan den euskal idazleetako bat. Ospe handiko sari ugari jaso ditu, hala nola Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala, *Krokodiloa ohe azpian lanagatik* Espainiako Kultura Ministerioak 2003an emandakoa. Aniztasunaren eta errespetuaren gaia jorratzen duen *Elefante txori-bihotza* lana 2001eko White Ravens zerrendarako hautatu zuten, Municheko Haur eta Gazteentzako Nazioarteko Liburutegi ospetsuak bildutako zerrendarako, alegia.

Liburu honen bitartez, deskribapenak eta izenlagunak landu ahal dira. Lehenik eta behin, ikasle guztiek batera (edo taldeka), ezagutzen duten pertsonaia bat deskribatuko dute. Pertsonaiaren itxuraren eta izaeraeren deskribapena egin beharko dute. Hartara, pertsonaiaren ezaugarri fisikoez gain, pertsonaiaren bihotz mota ere zehaztu beharko dute. Galdera honi erantzutea izango da gakoetako bat, liburuarekin lotura eginik: "Zer nolako bihotza du pertsonaiak? Zergatik?". Ondoren, ikasle bakoitzak ikaskide baten deskribapena egin beharko du, aurreko pertsoniarekin egin bezala. Azkenik, ikasle bakoitzak bere burua deskribatu beharko du, aurretik besteekin egin bezalatsu.

HARAGI KOLOREA

Idazlea:

Oihane Fernandez

Ilustratzailea:

Enrique Morente

Argitaletxea:

Ibaizabal, 2019

ISBN:

978-84-9106-793-1

69 orrialde

8 urtetik aurrera



Dena hasten da ikaskide batek Daneli haragi koloreko pintura eskatzen dionean. "Zein kolore da zehatz mehatz haragi kolorea?", galdetzen dio Danelek bere buruari. Hortik aurrera, Danelek bere inguruko haragi kolorea bilatzeko ikerketa-lana hasten du. Eskolara bidean ikusten dituen ibilgailuetan bilatzen du, ikusmen arazoren bat duen pentsatuta oftalmologoarengana joaten da, harategia duen aitari galdetzen dio... Baina oraindik ez daki zein den haragi kolorea. Horregatik erabakitzen du Mariori galdetzea. Mario ikasle oso adimentsua da, eta hark erakusten dio Daneli zer den haragi koloreko pintura. Igarkizunaren konponbideak, ordea, etsita uzten du Danel, nabaritzen duelako bere ikaskideek azal-kolore desberdinak dituztela. Haragiaren kolorea ez da benetan existitzen...

Istori honen bidez, Oihane Fernandezek arraza desberdinen inguruko hausnarketa plazaratzen du, bizi dugun testuinguru kulturanitzean oso garrantzitsua dena.

Horregatik, liburu hau ezin hobea da, besteak beste, kulturartekotasuna lantzeko eta eskola kulturantza eta, beraz, kalitatezkoa, lortzeko bidea jorratzeko. Ikasleei eskatu ahal diegu haien ikaskideen azal-kolorea eta baita haien ikastetxe-ko neska-mutilena begiratzeko eta konparatzeko. Hortik abiatuta, tailer bat egingo dugu: nork bere autorretratu margotuko du, eta autorretratu guztiekin erakusketa egingo da gelan (edo ikastetxean). Tailerprestatzeko [Angélica Dass](#)-en eredu eta argazki lana ([Humanae](#)) erabil daitezke.

SI NO TE GUSTA LEER, NO ES CULPA TUYA. ¿LEER O NO LEER? ESE ES MI PROBLEMA

Idazlea eta ilustratzailea:

Jimmy Liao

Itzultzailea:

Jordi Ainaud i Escudero

Argitaletxea:

Barbara Fiore Editora, 2019

ISBN:

978-84-16985-13-5

128 orrialde

10 urtetik aurrera



"Baliteke izkinako liburudendak itxi egin behar izatea. Ni izan nintzen jakiten lehena, aita delako bertako jabea". Esaldi horrekin hasten da lan erakargarri bezain harrigarria hau. Saltzailea liburu denda ixtera kondenatuta dago eta liburu-saltzaileak semeari lagunak biltzeko eskatzen dio, lehenago liburu dendara joaten ziren haur horiei galdetzeko zergatik utzi ote dioten joateari. Hortik aurrerakoan, liburuaz eta irakurketaz idatzi izan duten egile ospetsuen aipuak biltzen ditu autoreak. Orrialde bakoitza aipu batekin hasten da, eta horren ondoren egilearen informazioa dator. Horrez gainera, haurren iruzkinak jasotzen dira, bai eta ilustrazio bikain bat ere, beti liburuarekin eta irakurketarekin zerikusia duena. Horren guztiaren bidez, hausnarketa sotila egiten da gaur egun bizi dugun irakurketarekiko eta liburuarekiko urruntzeaz, irakurketaren eta beste aisialdi modu

batzuen arteko oposizioaz, liburu formatu berriari buruz, irakurketa gustu desberdinei buruz...

Jimmy Liaoren lan hau irakurketari eta liburuari egindako omenaldia da, eta beste lan batzuen ildotik egindakoa. Adibidez, Quint Buchholzen *El libro de los libros (Liburuaren liburua)* aipa daiteke, 1997an argitaratua. Bertan, hainbat herrialdetako berrogeita sei idazlek (hori-tako bederati espainiarrak) istorio laburrak idazten dituzte Quint Buchholz marrazkilariak egindako berrogeita sei marrazkietatik abiatuta. Irudi guztiek gai bera dute ardatz: liburua.

Aipagai dugun liburu hau abiapuntua hartuta, ikasle bakoitzak bere libururik gogokoena ikasgelara eramango du. Liburu guztiekin liburutegia osatuko da ikasgelan. Astero liburuak banatuko dira eta ikasturtean zehar ikasle guztiek irakurriko dituzte liburu guztiak. Truke-egun bakoitzean, ikasle baten liburu hori zergatik aukeratu duen azalduko du eta dagoeneko irakurri dutenek horren inguruko iritzia emango diote. Posiblea da *Booktuber* kanal bat egitea liburuari buruzko iritzia azaltzeko.



BESTEAK EZ BEZALAKOA

Idazlea:

Ricardo Gómez Gil

Ilustratzailea:

Jordi Vila Delclós

Itzultzailea:

Aintzane Atela

Argitaletxea:

Ibaizabal, 2019

ISBN:

978-84-9106-730-6

167 orrialde

10 urtetik aurrera



Samuelek hamar urte betetzen dituenean, bere psikologoak koaderno bat ematen dio bere pentsamenduak idatz ditzan. Psikologoak dio Samuel mutiko berezia dela eta, kontaktzen dituen esperientziak, printzipioz, hamar urteko mutil batenak diren arren (urtebetetzea, familiarekin zinemara joatea...), bere istorioan argi eta garbi ikusten da Samuel benetan berezia dela: zenbakietan finkatzen du arreta, xehetasunetan, errepikatzen diren gauzek erakartzen dute, ez zaizkio ezusteak gus-tatzen, molestatu egiten dute soinu ozenek edo jendeak bera ukitzeak, era guztietako zerrendak egiten ditu, zaila egiten zaio bere gelatik irtetea... Samuelen istorioaren bidez, inguratzen duen

munduan integratzeko egiten dituen ahaleginak eta horrek dakartzen zailtasunak ikusten ditugu. Samuel ulertu eta bere berezitasunetara egokitze bere familiarean eta inguruko hurbilenean ahalegina ere antzematen da. Hori guztia beti psikologoaren gidaritzapean, bera baita bidea egiten eta beharrezko jarraibideak ematen dituena.

Ricardo Gómez Gil-en *Besteak ez bezalakoak* liburuak hurbiletik jarraitzen du (agian estuegi) Mark Haddon-en 2003an argitaratutako *El curioso incidente del perro a medianoche* lan arrakastatsua. Mark Haddon-en lana Christopher Booneren egunerokoa da, eta bertan gazteak detektibe eleberririk bat idazten du Wellingtonen (Shears andrearen txakurraren) hilketari buruz. Hiltzailea bilatzeak arriskuak hartzea eramaten du, bere erosotasunetik ateratzera eta ezkutuko sekretuak ezagutzera. Haddonen eleberririk hainbat sari eta kritika onak jaso ditu munduan zehar.

Bai Gómez Gil-en bai Haddonen lanak lehen pertsonan Asperger sindromea edo espektro autistaren nahastea duten haur baten esperientziak kontaktzen dituzte (liburuek ez dute protagonistaren patologia argi eta garbi azaltzen). Samuel eta Christopher pertsonaien bidez mundua beste ikuspegi batetik ikusten eta patologia horiek dituztenak pixka bat hobeto ulertzen ikasten dugu. Zalantzarik gabe, bi lanak ezin hobeak dira eskola-inklusioa lantzeko eta, hortaz, kalitatezko hezkuntza lortzeko.

Bide horretan, proposatu ahal diegu ikasleei beren egunerokoa idazteko. Hiruhileko batean zehar, egunerokoari pasarteak gehitzen joango dira eta, astean gutxienez hiru aldiz idatzi beharko dute. Zer gertatu zaien, zer sentitzen duten, zer gustatzen zaien... Kontatu nahi duten edozer gauzak izango du tartea egunerokoan. Idaztea lagungarri izan bazaie, gerora ere egunerokoarekin jarraitu dezakete. Astean behin egunerokoari buruzko saio labur bat egingo da klasean. Nahi duenak zerbait irakurri ahalko du besteen aurrean, baina inor behartu barik.



5. GIH

GENERO BERDINTASUNA



[Generoaren arteko berdintasuna lortzea, emakume eta neskatok guztiak ahaldunduz](#)

Iratxe Esparza Martin

OILASKO HEGALAK

Idazlea:
Eider Rodriguez

Ilustratzailea:
Arrate Rodriguez

Argitaletxea:
Erein, 2020

Argitaletxea:
Ibaizabal, 2019

ISBN:
978-84-9109-578-3

40 orrialde
6 urtetik aurrera



Metafora ederra osatzen du Eider Rodriguezen liburu honek. Aldi berean, errealismoz jositako ilustrazioak oparitzen dizkigu Arrate Rodriguezek. Liburua irekitzean marrazkiak irakurketaren arreta bereganatzen badu ere, testuak izugarriko indarra dauka eta, hitzak neurtuta, igandero labean oilaskoa erretzen duen ama baten istorioa narratzen da. Protagonistak beti jaten ditu soberan gelditzen diren bi hegalak, egun batean, bizkarrean, kotoi itxurako bi pilotatxo ateratzen zaizkion arte. Orduan, ama ahaldunduz sentitzen da eta aske hegan doa munduan zehar nahi beste tokiko janaria dastatzera eta jendea ezagutzera. Alabaina, bereak faltan

botatzen ditu eta etxera itzultzean ohartzen da gauzak aldatu direla, orain berak ere oilaskotik zer jan aukera dezakeela.

Liburuaren gako interesgarrietako bat da testuak nahiz irudiek gordetzen duten ulermenaren eta irakurketaren maila ezberdina eta baita hizkuntza sinbolikoa ere. Azalean geldituz gero, igandero begirada tristeko emakumea daukagu, hainbeste hegal jan ondoren hegalak ateratzen zaizkion protagonistak. Aldiz, eta hau da liburuaren aberastasuna, irakurleak bere buruari galde diezaioke: "zergatik dauka protagonistak begirada galdua? zergatik ateratzen zaizkio hegalak bizkarrean? zer dela eta mundua zeharkatzeko beharra?".


Hiru fasetan koka daiteke protagonista:

- Lehenengoan etxean dago, espazio itxi batean, ikusezin besteen presentzian. Leihotik begiratzen du, akaso ez dakielako zer dagoen kanpoan. Bakardadea egunerokotasunean iltzaturik dago. Gelan galdetuz gero zerk eragiten duen egoera hori, erraz sor daiteke eztabaida.
- Bigarren fasean, protagonistak harridura erakusten du hegalak bizkarrean topatzen dituen: gorpuz itxuraldatuz doa, metamorfosia jasaten du eta zinemarekiko testuartekotasuna nabarmena da; izan ere, *Maléfica* (2014) filmean argi islatzen da maitagarriaren hegalak zein boteretsuak diren eta haien esanahi sinbolikoa. Hegalak izango dira, hain zuzen

ere, album ilustratuaren protagonista ahaldunduz bermatu eta etxeko besteen desirak betetzeari uztera bultzatuko dutenak.

- Hirugarren fasea lehenengoaren antitesia da, askatasuna eta poza baitira nagusi: istorioa kanpoko espazioan gartzatzen da eta protagonista libre sentitzen da munduko bestelako emakumeen bizimoduak ezagutzen dituen, funtsean, ahizpatasuna hautemateko aukera duenean.

Hiru egoera horiek protagonistaren ahaldunduz-prozesua bermatzen dute, protagonista beteta sentitzen da, erabakiak hartzeko prest eta baita etxean dagoen espazioa aldarrikatzeko ere. Esan gabe doa testua eta irudiak osagarriak direla eta adierazgarritasuna orrialde bakoitzean topatzen dugula. Arrate Rodriguezen irudiek Frida Kahloren margolanak gogoarazten dizkigute eta anitzak dira pintoreari zuzendutako keinuak: ispilua (ebakuntza egin berria Kahlok ispilua erabiltzen zuen autorretratu margotzeko), irudien koloreak, trazuak eta sinbologia. Hori dela eta, Eider eta Arrate Rodriguezen liburuak Frida Kahloren margolanak lantzeko eta ezagutzeko aukera eskaintzen digute, artea eta hezkuntza lotzeko aukera, alegia. Gainera, Kahlo margolan bakoitzean bezala, liburuaren protagonista ere espirituali berpizten da istorioaren garapenean.



MARIMUTILA NAIZ, ETA ZER?

Idazlea:
Ana Jaka

Ilustratzailea:
Patxi Gallego

Argitaletxea:
Elkar, 2020

ISBN:
978-84-9027-549-8

30 orrialde
6 urtetik aurrera



loneri marimutilla deitzen diote eskolan futboleko ona delako, ile motza daramalako, eta ez zaizkiolako panpinak gustatzen, ezta soineko distiratsuak ere. lone desberdintasun fisikoaren jakitun bizi da, badaki neska polita dela, baita marimutilla ere bai. Soiltasunez idatzitako ipuina da *Marimutilla naiz, eta zer?*, eta, aldi berean, pertsonaien elkarrizketak trebetasunez tartekatzen ditu Jakak, identitateari eta gorputzari buruzko ezagutza gelan lantzeko aukera paregabea emanez. Izan ere, irakurleak jasotzen duen ikuspegia oso interesgarria da lonek argi duelako nor den eta zer nahi duen; aldiz, ingurukoek haren identitatea onartzeko arazoak dituzte. Narrazioko sentimenduen joan-etorrian, protagonistak badi-tu non eutsia ematen dioten euskarri sendo bi: aitite Bernardo eta amama Antonia. Aitite loneren ondoan egoten da beti eta bizitzak kolore anitzak dituela ulerrarazten dio. Amama dagoneko hilda dago, baina, lonek eredutzat hartzen du, berak bezala, amamak hitzarmen sozialekin

eta estereotipoekin apurtzearen gizartearen gutxiespena pairatu behar izan zuelako. Amama jostuna zen, baina bertsoan ibiltzen zen plazan eta hori lone harro sentitzeko akuilua da.

Naiara izeba ezkontzearen dago eta gurasoek esaten diote loneri soineko polit bat erosi behar duela, lonek, ordea, traje dotore bat imajinatzen du, azken finean, "dotore jantzeko ez da soinekorik behar". Eginkizun horrek istorioaren tentsioa areagotzen du eta berebizikoa da lonek erabakitzeak daukan gaitasuna erakusteko eta haren nortasuna sendotzeko. Esan bezala, ipuinak identitateari, genero-estereotipoari eta bazterkeriei lotuta dauden hainbat gai lantzeko abagunea eskaintzen du: generoa kulturala eta gizarteak ezarritakoa da, mutilen eta nesken gauzak ez daude, pertsonen gauzak baizik, genero estereotipoekin apurtzeko beharra edota haurrek emakumezko ereduak (amona Antonia kasu) izateko garrantzia. Beraz, irakurlearen hausnarketa sustatzeaz gain, ipuinak bidezko gizartean kolore guztiek lekua dutelako ideia ere zabaltzen du, gelan *Marimutilla naiz, eta zer?* narratibatik abiatuz ezinbestekoa diren gaiak jorra ditzaten: nola bilakatzen gara emakume eta gizon? Aipagai dugun liburutik abiatuta, gaia lantzeko lotura interesgarriak dira honako hauek:

[Naizen Adingabe Transexualen Familien Elkarteak:](#)

- ["Zakila duten neskek. Bulba duten mutilak. Aniztasunaren adierazpen bat"](#).
- ["Neskak eta mutillak, aniztasunaren balioa"](#) unitate didaktikoa.
- [Desio bakar bat eskatuko bazenu, zer eskatuko zenuke?](#) antzezlan.
- [Hodeia eta biok](#) ipuina.

[Chrysalis Asociación de Familias de Menores Trans:](#)

- [Planeta Koloro](#) unitate didaktikoa.
- [El ser humano. Características físicas y sociales. Estereotipos de género](#) erreproduktzioa.
- [Material didaktikoa.](#)

ARTURO ETA KLEMENTINA

Idazlea:
Adela Turín

Ilustratzailea:
Nella Bosnia

Itzultzailea:
Fernando Rey

Argitaletxea:
Kalandraka, 2013

ISBN:
978-84-7681-786-5

40 orrialde
7 urtetik aurrera



Adela Turínek Haur eta Gazte Literaturaren ezaugarri sexistak aztertu zituen joan zen mendeko 60. hamarkadan. Gero, 70. hamarkadan, hogeitau liburu baino gehiago argitaratu zituen, non estereotipo sexisten eta genero diskriminazioaren kontra borrokatu zuen. Urteen zehar Adela Turínek defendatu du zein garrantzitsua den hezkuntzarako baliabideetan sexismorik ez izatea.

Klementina dortoka alai eta ameslariak munduan zehar ibili eta bizitzaz gozatu nahi du. Aintzira baten bazterrean Arturorekin maitemintzen da eta, ia elkar ezagutu gabe, ezkontzea erabakitzen dute.

Bikoteen arteko menpekotasun-harremanak erdigunean jartzen dituzte Adela Turín idazleak eta Nella Bosnia ilustratzaileak. Klementinak irudikatutako zorioneko etorkizuna iluntzen doa Arturoren jarreraren eta hitzen ondorioz, gero eta tristeago bizi da Klementina, Arturok egunero etxean bere zain egotea nahi duelako. Pixkanaka-pixkanaka, ia ikusezina izan arte, emazteari gero eta zama astunagoa jartzen dio eskolaren gainean. Alabaina, Klementinaren bizitzeko nahia ez da erabat desagertzen eta zapalduetako ahotsa berreskuratzen du. Narrazioak oso modu argian islatzen ditu desberdintasunean oinarritzen diren bikote harremanak, eta zabaldu nahi duen mezua tolesturik gabe plazaratzen da; gainera, irakurleak harrapatzen ditu Klementinaren egoera guztiz jasanezina dela ulertaraziz. Istorioa zoragarri garatzeaz gain, ilustrazioek ederki islatzen dituzte Klementinaren sentimenduak eta, zerbait azpimarratzearen, aurregiaren adierazkortasun-maila aipatu genduke.

Azaleko adierazkortasun hori har liteke abiapuntutzat lana aurkezteko: "zer esango ote diote elkarri azaleko pertsonaiek?" Elkarrizketa bat antzeratzea sormen-ariketa interesgarria izan liteke. Halaber, lana irakurri ondoren, Arturoren hitzak eta Klementinarenak ekar litezke komiki batera. Oro har, Klementinak ez die erantzuten Arturoren esanei, beraz, arrazoi eztabaidatu ondoren, Klementinaren bunbuilo hutsak hitzez betetzeko eska dakieke hurrei, ahalduntze ariketa gisa, ezen, istorioan hainbatean esaten dio Arturok Klementinari: "tuntuna". Nolabait, Klementinak sentitu eta esaten ez dituenak zer nolako sentimenduak diren ikusarazteko modua izan liteke, eta "pisua" zer den ulertzeko baliagarria. Aldi berean, prozesu horretan, hizkuntza literarioaren sinbolismoa lantzea oso aberasgarria izango da. Klementinak bere bidea egitea erabakitzen du bukaeran, eta horrela bukatzen da istorioa; bada, Klementinaren eta Arturoren postalak sortzea izan liteke, halaber, lanak iradokitakoei buruzko hausnarketarako bide. Segida ere eman dakioke aurreko ariketari: Klementinaren eta Arturoren postalak idatzita "zer idatziko ote dio batak besteari dauden lekutik?"

PIPPI KALTZALUZE

Idazlea:
Astrid Lindgren


Ilustratzailea:
Ingrid Vang Nyman

Itzultzailea:
David Urbistondo

Argitaletxea:
Elkarlanean, 2021

ISBN:
84-8331-269-7

156 orrialde
8 urtetik aurrera



Astrid Lindgrenek Pippi Kaltzaluzeren abenturak kontatzen ditu liburu honetan. Neska berezia da Pippi, desberdina eta harrigarria. Ile gorria eta bi motots dauzka, zapata handiak erabiltzen ditu eta askotan zaldi gainean ibiltzen da. Pippi Kaltzaluze bakarrik bizi da, Suediako herri txiki batean, Mozolomendi izena duen etxean. Pippik kontatzen du oraindik sehaskan zegoela hil zitzaizela ama. Aita, aldiz, itsasontziko kapitaina da, eta, Pippiren azalpenetan, uharte bateko Kanibalen erregea da. Bidaia ikaragarriak egiten ditu aitarekin itsason-

tzian, ekaitz batek aita irentsi ondoren, Pippik bar-kutik joatea erabakitzen du, bi gauza eramanda berarekin: *Nelson Jauna* izeneko tximino txikia eta urrezko txanponez betetako maleta bat. Bi horiek eta Mozolomendira eramateko erosten duen zal-di batek osatuko dute Pippiren mundu izugarria.

Protagonista nagusia Pippi da, neska bat, eta irakurlea hasieratik ohartzen da istorioan bes-te narrazioetako emakumezko protagonistei es-leitutako rola argi eta garbi deseraikitzen di-rela. Pippi abenturazalea da, bere bizitzaren jabea, irudimen handiko neskatoa, bere burua (eta besteena) zaintzeko gai eta edozein ara-zori konponbidea bilatzeko kapaza. Pippik ere irakurleak kontraesantetan sartzen ditu hainba-tetan, lotsagabea eta axolagabea delako; hala ere, pasarte horiek oso modu inteligentean eta zainduan idatzita daude, eta erabakigarriak dira pertsonaiaren garapenean. Maltzurak barregarri suertatzen dira eta protagonistaren ondoan bizi diren Tommy eta Annika anai-arrebek islatzen dute Pippik saihestu nahi duen errealitate arau-tua eta aspergarria. Horretan datza, hain zuzen ere, liburuaren erakargarritasuna: sarritan Pippi muturreko egoeretan eta burugabeko eginkizu-netan murgiltzen da eta horiek, beste bi umeen bizimoduarekin alderatuta, adierazgarriak dira ulertarazteko bizitzan neurria hartu behar dela askatasunetik erabakiz eta arduratsu jokatu.

Liburua kapituluka dago antolatuta eta bakoitzean gai bat jorratzen da, azpi-istorio labur bat garatu-ta. Horregatik, oso aproposa izan daiteke gelan tertulia dialogikoaren bidez ikasleen hausnarketa bultzatzeko eta gizarte-errealitatea kritikoki azter-tzeko. Halaber, genero-rol tradizionalak iraultzen direnez, horiek ere aipagarriak izango dira. Liburua genero-estereotipoei buruz hitz egiteko abiapun-tua da, Pippik beste emakumezko protagonista askok onartzen dituzten ideia edo irudiekin apur-tzen duelako eta, aldi berean, gizartean finkatuta dauden estereotipoak zalantzan jartzen dituelako.

UDA BAT SENEGALEN

Idazlea:

Lur Gallastegi Zendegi

Ilustratzailea:

Susanna Martín Segarra

Argitaletxea:

Elkar, 2019

ISBN:

978-84-9027-613-6

85 orrialde

10 urtetik aurrera



Garazik eta Izarok Senegalen pasatuko dute uda. Aita erizaina da eta lankidearen proposamena onartzen du, udako hiru hilabetetan Dakarretik kanpoaldean dagoen Balicounda herriko erie-txean lan egitea, alegia. Aitak daukan asmoa kontatzen dienean, alabek ezustekoa hartzen dute, baina, herrira heldu bezain laster kontura-tzen dira aurrean mundu ezezagun eta erakargarri bat daukatela. Balicounda ez da Afrikako edozein herri, berezia da emakumez eta beren seme-ala-bez osatutako herrixka baita. Garazi, Izaro eta

beren aita emakumeek eraikitako lastozko etxo-la batean biziko dira, naturak inguratuta. Egitura borobila daukan eleberri honek bikain hurbiltzen du irakurlea Afrikak (beste herrialde askok beza-la) gordetzen duen errealitate gordinera, istorioak ablazioz hitz egiten digulako eta horrek abagu-nea zabaltzen du geletan hainbat gai jorratzeko: emakumeen ahalduntzea, emakumeen genitalen mutilazioa edo indarkeriarik ez jasateko eskubidea.

Halaber, Herrialde eta kulturaren barnean dau-den generoen arteko desberdintasunak aipa dai-tezke, Gallastegik eraikitzen duen unibertsoak, Balicoundak, babesa ematen dielako zonaldeko emakumeei. Herrian ez diote inori ablazioa egi-ten eta, ondorioz, beren gorputzarekin plazera sentitzeko eskubidea ere aldarrikatzen da. Hori dela eta, testuan emakumezko pertsonaien go-goetak, bizipenak, estilo ezberdinak, jarraitutako ereduak edo esperimintatutako krisiak jasotzen dira, denak ume baten ikuspegitik azaldutakoak. *Uda bat Senegalen* liburuak fikziozko istorioa narratzen du, hala ere, irakurleak jabetuko dira idazleak benetako herria hartzen duela abia-puntu: Malicounda Bambara. 1997an emakume talde bat emakumeen genitalen mutilazioaren kontra egiteko bildu zen Malicoundan eta, ha-rrezkerok, milaka izan dira ablazioa erradikatzeko borrokatzen duten emakumeak eta erakundeak.

Garazik, Izarok eta Balicoundaren lagunek irakurleari Afrikarekiko estereotipoak desera-i-kitzen laguntzeaz gain, beste kulturaren jakintza ere erakutsiko diete. Has gaitezen kontinentea mapan kokatzen, eta jarrai dezagun galdetzen: “non dago Senegal? zer ezagutzen duzue he-rrialde horretaz? badakizue emakumezkoa edo gizonezkoa izateak pertsonen bizitza baldintza-tzen duela?”. Halaber, emakumeek jasaten di-tuzten indarkerien jatorriaz ere hausnar daiteke. Gallastegi metafora batez baliatzen da liburuan alderdi emozionala azpimarratzeko: gorputza sentimenduz betetako armairua da eta egoe-raren arabera lurrikara sor daiteke gure baitan. Hori da, hain zuzen ere, gelan erdigunean jar-tzeko alderdia, helburua delarik gizartea kritikoki aztertzea; izan ere, emakumearen gorputza ga-tazka-eremu bat da berdintasuna lortzeko bidean.

JULIETA, ROMEO ETA SAGUAK

Idazlea:

Mariasun Landa

Ilustratzailea:

Asun Balzola

Argitaletxea:


Erein, 2021

ISBN:

978-84-9109-593-4

74 orrialde

10 urtetik aurrera



Mariasun Landak eta Asun Balzolak ez dute aur-kezpenik behar. *Julieta, Romeo* eta saguak li-buruak 1994an ikusi zuen argia lehenengo aldiz eta ia hogeita hamar urte igaro ondoren, berri-ero Erein argitaletxeak plazaratu du. Barrutik eta kanpotik, Julieta emakume ederra da, sukaldari aparta, zoriotsua bere pisu zahar eta dotorean. Alabaina, ez dago bakarrik, sagu kuadrilla batekin elkarbanatzen baitu etxebizitza. Julietak egiten dituen tarta goxoen apurrak aprobeztatzen dituzte

saguek, neska molestatu gabe, oreka onartuan eta armonian bizi dira. Egun batean, baina, kaos heltzen da etxera, Julieta maitemintzen delako eta Romeo erakartzeko dieta egitea erabakitzen duelako. Zaletasunak ere aldatzen ditu eta horrek izugarriko eragina dauka saguen egunerokotasunean. Narrazioan, nahiz eta Julietak istorioaren pisua daraman eta Romeo bigarren plano batean kokatzen den, mutilak ikaragarriko eragina dauka Julietarengan, erakargarria sentitzeko eta maitasunaren izenean neska bere gorputza, ohiturak eta izaera aldatzen saiatzen delako.

Pertsonaien izenengatik hasita, izenburuak *Romeo eta Julieta* obra klasikoraino hurbiltzen gaitu, bi ñabardurarekin, ordea. Lehenengoa: emakumezkoarena mutilaren izenaren aurrean jartzen da. Eta, bigarrena: saguak pertsonaia bixiak dira eta protagonismoa hartzen dute. Oso interesgarria da egitura, istorioa kapituluka antolatuta dagoelako eta atal bakoitza galdera baten irekitzen baitu. Horrek hausnartzera bultzatzen duen galdera-erantzun jokoa eskaintzen die haur eta gazteei, bizitzari eta existentziari buruz pentsarazteko aukera eta, ondorioz, iritziak elkarri ezagutarazteko. “Zer da paradisuak? zer da infernuak? zer da asperdura? zer da ausardia? zer da izua?”. Badaude, aldiz, zeharka garatzen eta gelan landu daitezkeen bestelako gai: “zer da ederra izatea? zer da edertasuna? nola adierazi maitasuna? zer da maitasun erromantikoa? denak balio al du besteen maitasuna eta arreta lortzeko?”.

Laburbilduz, nabarmenak dira emakumeek eta gizonek bikote-harremanetan beren gain hartzen dituzten rola eta baita maitasunaren inguruan eraikitako mitoak ere; ondorioz, gelan lantzeko aproposak. Julieta etxean ikusten dugu, sukaldean, bisitan datorren Romeo tarten bidez konkistatu nahian. Alabaina, istorioak ezustekoren bat gordetzen du, irakurlea harritu egingo duena eta testuan zehar esleitzen diren rola iraultzeko baliagarria izango dena.



6. GIH

UR GARBIA ETA SANEAMENDUA



[Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea](#)

Maite Aperribay-Bermejo

ABELIN ETA EURIA

Idazlea:

Ana María Machado

Ilustratzailea:

Paula Alenda

Itzultzailea:

Patxi Ezkiaga

Argitaletxea:

Ibaizabal, 2007

ISBN:

978-84-8394-088-4

28 orrialde

5 urtetik aurrera



Ana María Machadok (Río de Janeiro, 1941) hizkuntza eta literatur ikasketak burutu zituen Brasil, Frantzia eta Italian eta hizkuntzalaritzan doktoratu zen. Urte askoz unibertsitatean lan egin zuen irakasle gisa eta 80ko hamarkadan hasi zen Haur eta Gazte literaturako obrak idazten. 2000. urtean Hans Christian Andersen saria jaso zuen.

Machadoren lan honetako protagonista Abelin dugu, guztiok ezagutzen ditugun mutiko askoren antzekoa. Abelin oso leku

lehor batean bizi da. Bertan, ia ez du euririk egiten eta zuhaitzek ez dute historik, apenas dago lorerik edo fruitu zaporetzurik. Erreka lehor dago, eta lehortearen ondorioz jendea gero eta tristeago dago. Abelin beti dago alai, beti asmo onez beteta. Aitari galdetzen dio euria nondik datorren eta aitak zalantza argitzen dio: “hodeietatik”. Abelinek euria eginarazi nahi du eta behin eta berriz saiatzen da horretan, hamaika estrategia probatuta: abestu egiten die hodeiei, gutunak bidaltzen dizkie, marrazkiak oparitzen dizkie... Eta bat-batean euria hasten da, *tip, top, tip, top*, tanta bat han, tanta bat hemen. Euria festa bihurtzen da, lur bustiaren usaiaz gozaten du Abelinek eta putzuetan jolastu haurrek. Egun batzuz euria egin ondoren, atertu eta paisaia erabat aldatu dela ohartzen da Abelin. Txoriak eta tximeletak lore eta fruitu ederren inguruan hegan ikusten ditu, ibaia urez betetzen da eta arrainak bueltatu egiten dira. Abelin, guztiak bezala, oso pozik dago orain. Machadok fantasiaz beteriko istorio bat aurkezten digu. Istorio horren protagonista haur arrunta izanik, argi adierazten da guztiok egin dezakegula zerbait natura zaintzeko. Abelinek badaki zein garrantzitsua den euria, eta behin eta berriz saiatzen da, helburua lortzen duen arte. Lan honen inguruan egin litezkeen askotariko ariketen artean, galdera hau proposatu dakieke ikasleei: “Zergatik da horren garrantzitsua euria?”. Solasaldi baten ondoren, haur bakoitzak hodeiei gutun bat idatzikodie, euriabidaltzeko eskatuz.

HIRU BEGIKO IGELA

Idazlea eta ilustratzailea:

Olga de Dios

Itzultzailea:

Ipar Alkain

Argitaletxea:

Denonartean, 2018

ISBN:

978-84-16791-68-2

38 orrialde

5 urtetik aurrera



Liburuaren protagonista Hiru Begiko Igela da, lehenbiziko hiru begiko igela. Hiru begiek kutsaduraren ondorioz jasan duen mutazio genetiko bati erreferentzia egingo liokete. Oso azal minbera zuen eta bizi zen lekua oso zikin zegoen, kutsatuta, eta bainujantzia jarri behar zuen bainatu ahal izateko. Zeruko hodeiak ere grisak ziren, eta urmaela inguratzen zuen lurralde bertakoak ez ziren objektuz betea zegoen. Inork ez zuen ingurune hartan bizi nahi: ura kutsatua zegoen, berak hodei gristat zuen hori kea zen, eta ingurua zakarrez betea zegoen. Gertatzen ari zena ikertu nahi zuen, kutsadura eta zakarra nondik zetozen jakin nahi zuen eta. Ikerketek fabrika erraldoi batera eraman zuten Hiru Begiko Igela. Orduan ohartu zen fabrika horretan etengabe objektu berriak ekoizten zituztela. Hiru

Begiko Igela ohartu zen zentzugabekeria hori eten behar zela eta gauzak aldatzeko erabakia hartu zuen. Erabaki zuen helburu hura lortzeko modu bakarra arazoa jende gehiagori kontatzea zela, horrela lortuko baitzuen laguntza. Inguruan zituen guztiei azaldu zien egoera, eta guztiek argi zuten gauzak aldatu behar zirela. Talde-lanean aritzea adostu zuten, topatzen zituzten objektu guztiak bildu eta fabrikaren alboan pilatzen joan ziren. Gauza mordo bat bildu zituzten eta osatu zuten pila fabrika baino handiagoa zen. Fabrikak errealitatea ikustean hausnartu egin zuen eta ikusi zuen ez zela beharrezkoa horrenbeste gauza berri sortzea. Aurrerantzean guztiak objektuak berrerabiltzen hasi ziren, kutsadura murriztu zen eta gauzek onera egin zuten urmaelean.

Album ilustratu honetan kontsumismoaren eta kapitalismoaren salaketa egiten da. Argi dago objektuak ekoizti eta pilatzeak naturan eta ingurunean daukan eragina negatiboa dela. Bestalde, beste behin azpimarratzen da guztiok egin dezakegula zerbait natura zaintzeko, eta kasu honetan talde-lanaren garrantzia azpimarratzen da.

Proposatzen dugun irakurketa hau egitearekin bat, uraren euskal agentziaren webgunera jo daiteke. Bertan hainbat bideo interesgarri daude, liburuan jorratzen den gaiarekin lotzen direnak. Adibidez, honako hauek: [15. kapitulua. Zer dugu ibai?](#) edo [16. kapitulua. Zeri deritzogu ibai zikina?](#) Liburuaren eta bideoen arteko loturak egitea da gakoa. Halaber, uraren euskal agentziaren webgunean [ur bidexkei eskainitako atal bat](#) dago. Ikasleei proposatu gertu duten ur bidexka bat aukeratzeko eta ibilbidearen fitxa irakurtzeko.



EURIGILEA

Idazlea:

Gianni Rodari

Ilustratzailea:

Nicoletta Costa

Itzultzailea:

Joseba Santxo Uriarte

Argitaletxea:

Begiko, 2018

ISBN:

978-84-16839-39-1

32 orrialde

5 urtetik aurrera



Eurigilea hodeietan bizi da eta euria eginaraztea da bere ogibidea. Hodeietan dauden txorrotak ireki eta ixteaz arduratzen da, euria egin dezan edo ater dezan. Lan handia denez, batzuetan Eurigilea nekatu egiten da eta hodei leun eta eroso baten gainean etzan eta lokartu egiten da. Lokartu aurretik txorrota irekita utzi badu, iratzartzean dena gris dagoela ikusten du, biztanleak goibel daudela. Eta lokartu baino lehen txorrota itxi badu, lehorteak eragin ditzake.

Istorio honen bitartez urak naturan daukan eragina argi islatzen da. Euskal Herrian, lehorteak baino, euri-jasak dira ohikoagoak. Haurrekin solasaldi bat egin daiteke honako galdera hauen harira: “Zenbat aterki dituzue etxean? sarri erabiltzen dituzue?” Haurrak ohartuko dira gurean euria ohikoa dela, eta ez dugula lehorterik izaten. Gaiari buruzko informazioa bada [sarean](#), eta interesgarria izan daiteke haurrekin euri, txingor, ekaitz eta elurteei buruz hitz egitea.

[Greenpeace erakundearen webgunean](#) klima aldaketari buruzko informazio interesgarria aurki daiteke. Irakasleak informazioa labur dezake eta ikasleekin klima aldaketari buruz hausnartu. Proposatu ahal diren galderak hauek dira: “Zer gertatuko litzateke euririk ez balu egingo? zein ondorio izan ditzakete lehorteek? ba al dakizue euririk egin ezean lurra sikatu egiten dela? eta zer gertatzen da euri asko egiten duenean?”. Landare eta zuhaitzek ura behar dute, baina neurri batean. Ur gutxi badute, sikatu egingo dira eta, ur gehiegi badute, ito egingo dira. Gaztetxoak uraren garrantziaz jabetu daitezten, irakasleak bi landare ekar ditzake gelara. Landareetako bat ez du ureztatuko; bestea, aldiz, egunero ureztatuko du. Aste batzuen buruan ikasleek ikusi ahalko dute ureztatu ez den landarea sikatu egin dela, eta gehiegi ureztatutako landarea ito egin dela.

Gaia kontuan izanda, euriarekin erlazionatutako esaera zahar eta atsotitzak landu daitezke “Goiz gorri, arrats euri”, “Eguerdiko euria, egun guztiko euria”, “Eguzkia eta euria, erromako zubia”, “Eguzki eta euri, martxoko eguraldi”, “Negua eguzkitsu, ondoko ura euritsu”, “Otsaileko euri, urteko ongarrri”, “Euri-urte, arto-urte”, “Apirilean sarri, euri eta euri”, “Txoria lur arras, euria laster has”, “Danen gustoko euririk sekula ere ez”.

LAS TRES MELLIZAS, TRES GOTAS DE AGUA

Idazlea:

Carles Capdevila

Ilustratzailea:

Roser Capdevila

Itzultzailea:

Aurelia Vigil

Argitaletxea:


Icaria, 2001

ISBN:

978- 84-7426-553-3

38 orrialde

5 urtetik aurrera



Hirukiak komunean daude. Teresa eta Elena baineran, jolasean, tapoia kenduta eta txorrota irekita. Anak eskuak garbitu ditu pixa egin ondoren eta konketako txorrota irekita utzi du. Komuneko tanga ere ez dabil ongi eta ura galtzen du. Ura nonahi hirukien komunean. Amak errieta egiten die ura xahutzen dabilzalako. Aburrida izeneko sorgina agertzen da bat-batean eta sorginkeria erabiliz tanta bihurtzen ditu, hodei baten bitartez bidaiatzen dute eta zeharo idorra den Tierra Seca herrian bukatzen dute. Sorginak tximista bat sor-

tzen du eta hirukiak hiru ur tanta gisa erortzen dira hodeitik. Tierra Seca lurraldeko biztanleak euriaren zain daude eta ur tanta horiek noiz jausiko diren zain daude beraien ontzi eta botilekin. Lurralde hartan hirukiek Cantimplorarekin eta Nigota eta Quellueva neba-arrebekin egiten dute topo eta beraiekin doaz ur bila. Putzu batera iristen dira, baina bertan ez dago urik. Egoera oso larria dela ohartzen dira. Nigotak azaltzen die Tierra Seca delako lurraldetik hegoaldera Tierra Húmeda dagoela, non biztanleek behar beste ur duten, haurrak baineran iturria itxi gabe bainatzen diren, igerilekuak dauden... Tierra Secako beste biztanle batzuen ustez Tierra Húmeda ez da existitzen, basamortuan bizi direnen ispiatzea da. Hirukiek egiaztatu nahi dute Tierra Húmeda existitzen den eta basamortutik oinez hasten dira. Ibilbide horretan garai batean erreka izandako ibaibideak aurkitzen dituzte, baita ur kanalizazioak ere. Azkenean Tierra Húmeda aurkitzen dute. Bertako etxe guztiek igerilekua dute, aspertsore bidez ureztatutako lorategiak, golf zelaiak... Cantimplorak uste du ez dela justua ura horren gaizki banatua egotea. Ura xahutzeaz gain ez dute berrehabiltzen eta inguruko ibaiak Tierra Húmedarantz desbideratu dituzte. Cantimplora haserre dago. Tierra Húmedako biztanleak oso berekoiak direla iruditzen zaio. Hirukiek, Cantimplora, Nigota eta Quelluevaren laguntzarekin ura Tierra Secarantz kanalizatzen hasi dira, bertan dute eta ur beharra. Hirukiak etxera bueltatzen dira eta bainua hartzeko ordua iristen denean amari esaten diote nahia-go dutela dutxa azkar bat hartu bainatzea baino.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak (d.g.) [urari buruzko txosten batean](#) azaltzen du nola aurreztu dezakegun ura etxean gure ohiturak pixka bat aldatuz, eta Hirukien istorioa sarbide egokia da lanketa hori egiteko. Aipatu berri den txostenean uraren kontsumoaren inguruan hausnartzeko galdera interesgarriak proposatzen dira, adibidez: “Ba al zenekien bainatu ordeztu dutxa azkarra hartzen badugu 100 litro ur baino gehiago aurreztu ditugula?”. Etxeko ur kontsumoa murrizteko gomendio interesgarriak ere jasotzen dira:

- Laburtu dutxa azpian txorrota irekita ematen duzun denbora. Xabotzen zaren bitartean, itxi txorrota, eta ez egon denbora gehiegi ur-zurrustaren azpian.
- Dutzandenboralaburrago ematen badugu, ura berotzeko behar den energia aurrezteko dakar

eta, horrenbestez, energia hori sortzeko beharrezkoak diren ikatza, petrolioaren deribatuak edo erregai nuklearra ere aurreztuko ditugu.

- Hortzak garbitu edo bizarra egiten duzun bitartean, behar beharrezkoa duzunean soilik ireki txorrota. Gainera, txorrota ireki beharrean edalontzi bat erabiltzen baduzu, 14 litro ur aurreztu ahal dituzu aldi bakoitzean.
- Xaboi gehiegi erabili arren, ez gara garbiago geratuko. Hondakin gehiago sortu besterik ez dugu egiten, eta, gainera, xaboi gehiegiak kalte egin diezaioke gure larruazalari.

Aurrekoen bidetik, ikasleei galdetu: “Bainua edo dutxa hartzen duzue? ura aurrezteko neurririk hartzen al duzue etxean? neurri berriak hartzeko prest egongo zinatekete?”. Zerrenda bat ere presta dezakete ikasleek, istorioko hirukiei gomendioak eginez.



LOS NIÑOS DEL AGUA

Idazlea:

Angèle Delaunois

Ilustratzailea:

Gérard Frischeteau

Itzultzailea:

Gemma García

Argitaletxea:


Intervida eta Edicions Vitel-la, 2009

ISBN:

978- 84-936250-8-5

37 orrialde

5 urtetik aurrera



Oso album ilustratu interesgarria dugu *Los niños del agua*. Munduko haurrei galdetzen zaie bakoitzarentzat zer esan nahi duen urak eta erantzunak jasotzen dira ez bakarrik gaztekeraz, baizik eta haur horien ama-hizkuntzan ere. Urak munduko leku ezberdinetan dituen esanahi ezberdinak aurkezten zaizkigu. Munduari bira ematen zaio album honi esker: bidaia Kanadan hasten da eta Afrikan bukatzen da. Hasteko, Nunavut-en (Kanadan) bizi eta inuktitut hizkuntza (inuita) hitz egiten duen haur bati galdetzen zaio zer den beretzat ura. Bere esanetan ura negua da. Jarraian Espainiako haur bati galdetzen zaio, eta horrek ura urtegi bat

dela dio, urtegiaren urak estali baitu bere aita-
ren jaioterria zena. Hirugarren etapak Errusiara
garamatza. Bertako hauraren iritziz ura ozeanoa
da, itsas izar bat. Alemaniako haur baten iritziz
ura loratzen den lore bat da. Bidaiaren hurren-
go etapek Iparramerika, Brasil, Peru eta Bolivia,
Txina eta Israeletik bidaiarazten digute. Azken
hiru etapek, aldiz, India eta Afrikara. Indiako
haurarentzat ura montzoia da. Afrika iparral-
deko haurarentzat ura pazientzia da, mentazko
tea. Eta azkenik, Afrika erdialdeko haurren-
tzat ura miraria da. Azken orrialdeetako batean
azaltzen da ura bizia dela, eta azpimarratzen da jai-
o aurretik ere, bizi ahal izateko, ura behar dugula.

Lan honetan, urak munduko leku ezberdinetan di-
tuen esanahi ezberdinak aurkezteaz gain, hizkun-
tza-aniztasuna ere nabarmentzen da. Haur bakoit-
zak hizkuntza bat hitz egiten du, eta berarentzat
urak zer esan nahi duen hizkuntza horretan idatziz
agertzen da albumean. Horrela, munduko hamabi
lekutan urak duen esanahiaz gain, hamabi hizkun-
tza ezberdinen adierazpideak ikusi ahal ditugu.

Liburu hau egokia izan liteke martxoaren 22an ospa-
tzen den Uraren Nazioarteko eguna testuingu-
ratzeko. NBEak dio munduko 3 biztanletik 1 eda-
teko ur gabe bizi dela. Munduko nazio guztietako
biztanleek ez dute ur garbirik eskura, ez eta sa-
neamendu-zerbitzurik ere. Esan liteke gaur egun
inoiz baino garrantzitsuagoa dela higiezia zain-
tzea, eskuak garbitzea bezalako keinu txiki batek
COVIDaren aurkako borrokan lagundu dezake
eta. Baina, tamalez, horretan ere ezberdintasun
handiak daude nazio batetik bestera, eta errea-
litate hori islatu dute NBEk beren [webgunean](#),
mapa baten bidez. Nabigatu mapa horretan eta
konparatu garatutako nazio eta garapen bidean
dauden nazioen arteko egoera. Alderatu adibidez
Espainia eta Marokoko egoera, edo Espainia eta
Aljeria eta alderatu adibidez ur edangarriaren por-
tzentajea, saneamenduarena eta higieziarena.

Ur gutxi (lehortea) izatea arazo bat da. Baina zer
gertatzen da ur gehiegi dagoenean? Uholdeak,
montzoiak... izaten direnean, zer nolako arazoak
sortzen dira? [UNESCOren txosten batek](#) dio
2009-2019 hamarkadan uholde eta lehorteak
asko areagotu direla, eta aurreikusten dela uhol-
de eta lehortearen maiztasuna eta larritasuna are-
agotuko dela. Honelako gaiez hausnartu daiteke
ikasleekin: "Zer egin dezakegu eskolan edo etxean
uraren erabilera eraginkorragoa izan dadin?"

ERREKA MARI. EUSKAL HERRIKO AZKEN LAMIA

Idazlea:

Enkarni Genua

Ilustratzailea:

Jesús Lucas

Argitaletxea:

Erein, 1988

ISBN:

84-853224-26-9

Komikia

23 orrialde

8 urtetik aurrera



Komikiaren hasieran azaltzen zaigu orain dela
urte asko Euskal Herrian lamiak bizi zirela.
Oso politak ziren, ohi ez bezalakoak. Pixka-
naka-pixkanaka desagertzen joan ziren, eta
bakarra geratu zen: Erreka Mari. Azken lamiak,
Martin artzaina ezagutu zuen, erreka alboan
lo-kuluxka egitera etorri zenean. Lagun egin zi-
ren eta Martinek poz-pezik pasatzen zituen egu-
nak Erreka Mari lagunarekin hitz egiten. Marti-
nen bizilagunek uste zuten herritik kanpo bilatu
zuela neska-laguna. Erreka Mari ez zuen nahi
bizilagunek lagun berri hura bera zela jakiterik.
Beldur zen, ezberdina zela-eta gaiztakeriaren bat

egingo ote zioten. Bizilagunek jakin zutenean
Martinen laguna Erreka Mari zela, lamia herritik
kanpora bidali nahi izan zuten. Lehenik orrazia
ostu nahi izan zioten, baina lortu ez zutela ikusi-
ta, erreka zikintzea erabaki zuten. Erreka Mari
ezin zuen zikinkeriaz betetako erreka hartan bizi,
eta beste errekatxo batera joan zen bizi izatera.

Komikiaren azken orrialdean irakaspen moduko
batek irakurlea abertitzen du: "Erreka Mari non
dagoen, ez dakigu, baina ziur gaude nonbait,
Euskal Herriko edozein errekatxotan egongo
dela. Horregatik, lagunok, mendira joaten ba-
zarete, eta errekatxo bat aurkitzen baduzue,
zaindu... Beharbada hor bizi da Erreka Mari".

Komiki honek euskal mitologiako pertsonaia eza-
guna du protagonistetako bat, lamia. Ez edozein
lamia, gainera: azken lamia baizik. Zentzu horretan,
oso komiki interesgarria da, alde batetik eus-
kal mitologiak ardazten duelako eta, beste alde
batetik, lamiaren bidez espezie mehatxatuen pa-
ralelismoa egin daitekeelako. Animalia eta landare
espezie asko daude mehatxatuta, eta sarri ur falta
edo ur garbiaren falta da mehatxu horren arrazoia.

Lamiaren istorio hau baliatu liteke bioaniz-
tasunaren eguneko jarduerak testuingura-
tzeko. Maiatzaren 22an Nazioarteko Bioaniz-
tasunaren eguna ospatzen da. Bada, Eusko
Jaurilaritzak, [AZTERTU Ingurumen Hezkun-
tzako programaren](#) baitan, ibai eta hondartze-
tan garbiketa-lanak egin eta hondakin eta za-
borrak biltzeko. Horrekin lotu daiteke istorioa.

Bestalde, honelako galderak proposatu litezke
landutako komikiari loturik: "Herriko ibaiari buruz
zer dakizu? non jaiotzen da? non itsasoratzen da?
ibaia garbi dagoela uste duzu? zakarrik ikusten
duzu? ikusten duzu bertan arrainik? eta hegaz-
tirik? laminekin lotutako toki-izenik ba al da in-
guruan?". Halaber, plastiko eta mikroplastikoen
gaia landu daiteke. Gisa horretako gogoeten
bidez, bizimodu jasangarriago bat izatearen ga-
rrantziak kontzientziatu daitezke gaztetxoak,
eta hondakinak modu zuzen batean kudea-
tzea zein garrantzitsua den azpimarra daiteke.

Komikiarekin batera, Ekologistak Martxan taldea-
ren ["Ura bizitzarako, ez merkataritzarako" kanpai-
naren inguruko irakurketak](#) egitea proposatzen
dugu. Irakurri eta gogoetatu: "ura eskubide bat
da? gizaki guztiek ote dute eskubide bera?"

